


anaitasuna

1979. EKO IRAILAREN 11. EGUNA. 11. LEHEN AMABOSTALDIA. 1989. ALE BEREZIA. 80 Peta.


ESTATUTUA





CAJA LABORAL. *Euskadiko*
Rubca 

AURKIBIDEA



4. Artikuluburua
5. Liburuak eta agiriak J.S.
6. Abortuagatik juzkatuak B.E.A.
8. Veranea en Euzkadi (RCE). E.M.
11. Txistuaren alde: María Luisa Ozaitari erantzunez. José Inazio Antsorena.
12. Maskaraden birbizketa.

12. Maskaraden birbizketa Barkoxen Jon Sendagorta.
14. Euskara: jalgi hadi XX mendeko mundura. J.R. Bilbao.
16. 40 urte eta gero ...
18. UCD-ko Estatutua dugu?
28. Estatutuari zenbait burutapen. T. Tripol.
32. Besteek deitena. ("El Periódico", "La Vanguardia").
34. Besteek diotena.
36. BAI asombroso ("Euzkadi").
37. Estatutuari buruzko bitxikeriak. Ramon Garay.
38. Besteek eta Freirek diotena. Mary Merida.
39. Ordenu Publikoa eta Estatutua. Min.
42. Aurreko ANAITASUNA bateko "Konstituzio Projektuaren Análisis".
46. Portugal: Iraultzatik Abenduko hauteskundeetara. Maria Jesus Esteban.
48. Leioa: Unibertxitateko lehen kurtxoa euskaraz. Txepetxea.
50. Handikeriaren kontra nortasuna. Karlos Santisteban.
51. Bihotzaren otoitza. Borja Barandiaran.
53. Donostiako XVII Zimemaldia salbatu egin da.
58. Liburu berriak. Jon Lendagorta.
61. Badugu. Ba dugu. J.R. Etxebarria.
62. Gurutzegrama. Larry Trask.



anaitasuna

KOORDINAKETA

J. R. Etxebarria

ERREDAKZIOA

J. Llerandi, T. Trifol

IDAZKUNTZA KONTSEILUA

J. Agirreazkuenaga, Andolin

Eguzkitza, J. R. Etxebarria,

Miren Izagirre, J. Llerandi,

E. Martin, Joseba Sarrionandia,

T. Trifol, I. Urtasun, I. Zabaleta

ARABA

E. Knorr

BIZKAIA

J. Llerandi

GIPUZKOA

I. Urtasun, A. Oiartzabal

IPARRALDEA

M. Lanatua

NAFARROA

I. Zabaleta, B. Zabaleta

NAZIOARTEKOA

A. Eskisabel, M. J. Esteban, T. Trifol

IDAZLE ETA LANKIDEAK

J. Artzelus, X. Gereño, J. M. Torre

alday, X. Kintana, A. Eguzkitza, P.

Agirrebalzategi, Mariasun Landa,

J. L. Alvarez (Txillardegui), J. Mendizabal,

E. Entziondo, S. Laffite,

M. Pagola, J. Sarrionandia, J. J.

Bakedano, Natxo de Felipe, F. Alaña,

J. Etxeberri, B. Barandiarán,

K. Arko, J. Iturbe, M. Otazurialde,

J. R. Bilbao, J. M. Arzubiaga, K.

Santisteban, B. Atxaga, J. Idigoras.

FOTOGRAFOAK

Imanol, R. Zarrabeitia, A. Alday,

Isaber

MAKETAPENA

R. Zumalabe,

KOMIKIAK

A. Olariaga, I. Lauzirika, B. Zia,

X. Etxenike, Gentz, Monty

MARRAZKILARIAK

Ttua taldea

PUBLIZITATEA

ETA

HARPIDETZA

J. Idigoras, A. Uria

ANAITASUNA

Zabalbide, 68-entlo. BILBAO-6

Tfnoa: (94)4335808

MOLDIZTEGLA

Lege Gor. D. L. BI-1753-1967



ZERTARAKO LANABESA?

Euskal Herriaren larritasunetako grabeena bere nortasunaren galtzea da. Askoren-tzat agian, horrekin batera beste hainbeste gehiago dago. Langabezia, ekonomi-larrialdia, kapitalen ihestea ere hortxe hortxe daude era batera. Gaur ba dago estatutu-tua. Lanabes honek baztertu du herri bereko zati garrantzitsu bat. Askok zera diot: ezen estatutu honek ez dituela betetzen gure herriak aldarrikatu duen guttienezko gogo eta nahia. Baina utz dezagun azken berari zeren eta, lanabesa bada zer bait eraikitze gerta baitaiteke.

Hala ere, guttienezko baketze eta estabilizapena, gatazkaideen funtsezko akordioan oinarritu beharko litzateke eta honetan ere, jende asko geratu da karpooan. Baina estatutu horren defendatzaileek lanabes egokia dela sinesten dutenez, eman diezaiogun ba, gure konfidantzazko botua.

Gu, euskaldunok, euskaraz mintzatzen eta elkar maite eta gorrotatzen saitzen garenok oso kinka larrian gaude pertsona modura aurrera jarraitzeko. Gure hizkuntza normalizatzeko utziezinezkoak diren baliabideak ipini ahalko ditu Estatutu honek? Komunikabideetako ate nagusietatik sartzeko ahalbidea izanen al du Estatutu honek?. Telebista euskaraduna lortzeko, haur, atso, agure, eta gu gurenen hizkuntza normalizapenerako oinarria den tresna bera ipintzeko balio izanen al du estatutuak?. Horretarako ere balio ez badu, television baskak garrantzitsu eta interesgarri den guztiak erdaraz ematen dituen artean, "Euskal Irrati Telebistak" txatalak jartzeko, euskarazko programa etniko-folkloretsuen bidez gogaitzeko eta ez besterik balio badu ez dago jadanik inolako dudarik. Estatutu honek ez du balio orain premiazi eta oihuka eskatzen ari den normalizapena lortzeko. Laster, oso laster ezagutuko dugu arbola bere fruituen bidez. Filo-sofía orokorraren haztarnetatik konkretura jaitsi behar da. Ordua da.

GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLA

Irakasleentzat euskara irakasteko metodologia. Urriaren 5ean iluntzeko 7 etatik 10etara, eta Urriaren 6an goizeko 9etatik 13etara. Ostiral iluntzea eta larunbat goiza.

Metodoa: EUSKARA MAILAKA 0 eta 1.

Emaitzak: Mikel Alkorta eta Aitor, La Salletarrak.

Ikastoletan eta eskola Estataletan euskara irakatsi behar duten eta euskal Eskolan diharduten irakasle guztientzat.

Lazkaon, PAX etxean. Matrikula 1.000 pta.

GERNIKA OPERARAKO GAIEN SARIKETA

Bilboko Koral Bazkuna "Gernika" Opera sortzeko balioko duten Gaijen Sariak antolatzen du. Opera hori egiteko Patxi Eskudero Maixua izan da aukeratua, Zigor, Illeta eta beste musika lanen egilea bera. Geroago izendatua izango da euskarazko liburuxkaren idazlea.

Sariak, hauetxek izango dira:

Ehun mila pezetakoa, lehenengoa eta

Berrogei ta hamar milakoa, bigarrena.

Idazle bakoitzak bere musika gaia edo gaiak aurkezterakoan, hau izan behar du kontuan: Operak hiru ekintza, edo behintzat bi ekintza eta bukaera bat izan behar ditu zati bakoitzak hamarren bat ekitaldi edo eszena dituelarik. Euskaraz ala erdaraz (nahiz, kastilanoz, nahiz frantzez) idatziak izan daitezke.

Musika gaiok, sobre edo azal itxian, elbide honetara aurkeztu edo bidaliko dira: Bilboko Koral Bazkuna, Urkixo Alameda 13-2. BILBO-8, urrutizkinak 416 71 48 eta 415 09 25 (94) azalean bertan "Gernika Operarako Gaia" ipintzen duelarik.

Gaijen Sariak honetaz arduratzen den Bilboko Koral Bazkuneko Batzordea, jaun hauek osatzen dute:

Lehendakari, Patxi Eskudero, musikalaria.

Besteak: Jose Antonio Arana Martija, Gernikako Udaletxeko ordezkaria; Xabier Jauregizar, Gernikako Bonbardeoaren Ikeretzaille Batzordearen ordezkaria; Juan San Martin, Euskaltzaindiaren ordezkaria; Luis Kastresana, idazlea; eta Jose Antonio Lipperteide, Jose Mari Barasorda ta Kepa Amias, musikologoak.

Bilboko Koral Bazkuna, Lehendakari.

Juan Elua

OLERTI EGUNA LARREAN KRISTO-ERREGEAN

Aurten ere, 21.garrena delarik, ospatuko da OLERTI EGUNA. Aita Santi Onaindiaren eskutik biribiltzen joan den egun honen lehiaketa hiru sailetan dago banaturik: a) Lirika Saila, b) Poema-Luze Saila eta d) Bertsolarien Saila. Gaia erabat libre izaten da, sariak sinboikoak ditugularik. Edozeinek har dezake parte lehiaketa honetan eta idazkeraren aldetik ez da inongo eragozpenik.

Bertsolarien Sailean, gutxienez, launa estrofako hamabi gai desberdin ukitzea komenigarri da, haxe baita azken urteotan eman den erdi-maila.

Lanak Aita Santi Onaindiari bidali behar dizkio egileak, Bizkaiko Larreara. Epea Urriaren 30. ean amaitzen da.

Olerti Eguna, ohienez, Kristo Erregean ospatzen da. Aurtengo edizioa, beraz, Hazilaren 25.ean. Bertan eta jendearen aurrean lan sarituak irakurriak izango dira.

Bestalde, hazko Egunean esanda gelditu zen bezala, aurtengoa Jokin Zaitegi arrasatearrari eskaini behar zaio. Abuztuaren 17.an hil zen euskal poeta handi honek benetako gogoaz itxaroten zuen Hazilaren 25.a. Baina heriotzak ez dio Eguna ikusteko aukerarik eman.

Nolanahi ere, Aita Onaindiaren egitarau berezi bat gertutzen ari da Jokin Zaitegi zenaren irudia merezi den bezala gorapatu ahal izateko.

79/9/18

GRAMMAIRE BASQUE Ithurry

Hantiz klasiko ari dira berrargitaratzen euskal liburuetan. Orintsu berrargitaratu berria da Jean Ithurry Sarako abadeak 1895.ean publikaturiko "Grammaire Basque" delakoa. Frantsesez eta lapurtareri buruz mintzo da batipat, grammatikan azaltzen dituen hiru zatiak, izena, aditza eta sintaxia direlarik. Ez da inondik ere gramatika espekulatibo bat, aitzitik lapurtera klasiko harturik bere gramatikaren errejistro bat egiten du.

Federiko Krutwig Sagedo aristokrata eta tremendista batek egin dio hitzaurrea, ehun horrialde

LIBURUAK ETA AGIRIAK

baino gehiago hiru hizkuntzatan. Egia esan, ematen ditu zenbait argibide. Esate baterako, hiru gramatika moeten artean egiten duen bereizketa: a) Grammatika philologikoak b) Grammatika linguistikoak eta d) Grammatika metodologikoak. Lehenean hizkuntza klasiko edo literarioaren gramatika jartzen du eta J. Ithurry-ren Grammaire Basque haxe litzateke onena. Bestalde, gramatika linguistikoak hizkuntzaren biziari eta enpleguari buruzkoak, Azkueren Morfologia eta Lafitteren Grammaire bezala, linguistentzat batipat. Eta hirugarrenez, metodologikoak hizkuntza irakastekoak, Ithurryren honetatik aterata Sauveur Arotçarenak egin duena bezala.

Gramatika klasiko eta garrantzitsu bat beraz. Bestalde, sarrerarekin gauza bi egin daitezke, ez irakurri edo denbora lasai hartu "syntheke" eta "hochkultur" artean murgildu orduko; edozelan ere sarerako zenbait arazo oso interesgarriak dira.



LARRAINTARRAK HUNTU KOBLAK. J. B. Borthiry-Sala

Argitaldaria: SU-
-AZIA elkarte. Maule.

Elkarpen berri bat sorturik dugu Zuberoan: Su-Azia. Hemen ditugu, airtortzen dizkiguten xedeak: Euskararen begirteza eta hedatzea, familietan, elizetan, eskoletan, lantegietan, hots, bizi garen leku guztietan.

Su-Aziaren lehenetari-

ko ekintza bat, Larrañeko Borthiry-Sala koblakariaren liburuxka hau argitaratzea izan da.

Kobla edo kantoreak, biografikoak dira, bere bizitza malerusu kondatzen Etxahun zaharraren gisara.

Larrañen sorturik, gazterikan laboraria izan zen. 1914.ean gerlora deiturik, frontean zauritua izan zen eta Prusian preso. Gerla amaiturik gaixorik erortzen da eta Bordeleko ospitalera abiatzen da. Osatu eta gero, bertan egin zuen arotz bezala bere bizirako ahalegina.

Azkeneko urteetan berri-erri, eta arras sakonki gaitxotua, Atharratzeko ospitalean igaro zituen urteak. 1974garren urtean hil zen.

Bizitza honek eman behar ditu benetan bertsoararako gaiak, eta Borthiry-Salak bertsoetan bilakatu zituen bere gertaera malerusak.

Liburutxoa mirari bat da. Non aurkitzea izan liteke problematikoa. Guk Zuberoan aurkitu genuen erraz, baina beste euskal eskualdeetan ez dugu ikusi. Mereziko zuen benetan liburutegiren batzuk arduraz ezatela Hego-Euskadira ekartzen.

Su-Aziak bere aldetik haxe eskatzen dio orori:

Zuberoko Euskal Giroa gorantz abia dadin, eta Su-Aziaren ihardun bihurtzeko, izena, zuzenbidea eta herria bidali, urtebeterako 20 liberako sariarekin.

Hau da bere zuzenbidea: Secretariat de Su-Azia. Agerria. 64130 Mauleon-Soule.

J. S.

ABORTUAGATIK JUZKATUAK



Hurrengo Urriaren 26an, goizeko hamarretan abortu giteagatik 11 emakume izanen dira Bilbon. Emakumeok atxiloturik izan ziren 1976.eko Urriaren eta ordutik hona fidantza bidez libre egon dira.

ASUNTUAREN HISTORIA PIXKAT

Emakumeotako 8 abortu egiteagatik prozesaturik daude; beste bat abortu egiteko laguntza prestatzeagatik eta gainerako beste biak abortuak praktikatzegatik...

Abortu eragiteagatik akusatuta emazteak abortu egileen haurakide zen, baita zenbaiten etxekide, ere. Poliziari egindako haren deklarapenaren arauera, 1970.etik abortutan ziharduen. Metodoa zerean zetzan; pera bat urxaboi alkoholezko disolbapen eta guzti magina-barneratzea. Poliziari jakinerazi zionez, makina bat abortu eraginda zegoen, baita emakume batzuri bitan eta hirutan ere, haietarik bat ere ez zen hila eta ondotik batzuk ospitaleratu beharra ukana zuten.

rean zetzan; pera bat urxaboi alkoholezko disolbapen eta guzti magina-barneratzea. Poliziari jakinerazi zionez, makina bat abortu eraginda zegoen, baita emakume batzuri bitan eta hirutan ere, haietarik bat ere ez zen hila eta ondotik batzuk ospitaleratu beharra ukana zuten.

Ez ziren batzuri ezertxo ere kobratzen; abortu prezioak 800 eta 9000 pztza artekoak izaten ziren, prezio arrunta 3000 pztza ohi zen arren.

45 urte ditu, ezkontuta dago hiru seme-alabarekin.

Hatzeman bezain laster Oka-Langrares eta Basauriko gartzeletan 7 t'erdia hila betetan egon zen, probisionalki askatua izan artean.

Haren alaba ere prozespean dago. Akusatua da, hark berak, 14 urte zituela-



rik, beraren ama medio abortu eginagatik eta beroni lagunduagatik gainerako emakumei abortu eragiten. Ezkonduta dago eta senarrarengandik hartzen zituen jipoliak zirela eta, gurasoenera itzuli beharrean aurkitu zen, hiru hilabetez haurdun zegoelarik. Oraindik orain 22 urte ditu. Hatzemandakoan hilabete egona da gartzelan. Fiskaleak amarentzat 6 urte gartzela egindako abortu bakoitzeko eskatzen ditu. Abortu egindako emakumeak, batzu behin baino gehiagotan, hamar direla gogptam ediloiz. 60 irtetol gpralpa gertatuko zaio kondena.

Alabarentzat, bere abortuagatik urtebete eta laguntzeagatik akusatu zaion abortu bakoitzeko 6 urte eskatzen ditu. Orota 41 urte inguru.

Bi hauen kultur maila izugarri exkaxa da.

Abortu egindakoak

Adina 31 eta 41 urteen bitartekoa da. Ba da gazteago bat, 24 urtetsukoa. Bat izan ezik, emakume guziak ezkonduta daude, 2-3 seme-alabarekin, dirutan larri larri daudelarik.

A. Bi seme-alaba txipi, adin berekoak. Hark osasun txar txarra dauka. Medikuari antisorkariak eskatu zizkion baina honek ukoa eman zion.

B. Atxilotzeko unean haren abortutik zortzi urte (egun 11 lirateke) pasata zeuden. Bi seme-alaba txiki zituen, ekonomi egoera larriaz bizi izanik.

C. Duela 3 urte (egun 5) abortu eginda. Ez zegokeen haurdun, nonbait; hilodola atzeratua izan zukeen soilik.

D. Duela 2 urte abortu egindakoa, egun lau dirateke, haurdunaldi txar txarra baitzeukan.

E. 4, 3 eta 2 urtetako seme-alabak zituelakoz hilartu beharrean aurkitu zen. Orain direla 3 eta urte bi aldiz abortu egindakoa. Arras gaizki zeuzkan gibela eta giltzurruna.

F. Hiru seme-alaba zituen eta gehiagorik nahi ez.

G. Ezkongabe zegoen egotzi nahi ukan zuenean, baina lortu ez eta hiru saio mintsuren ondoren haurra ukatea erabakizuen. Prozespean dago, bada, abortu eginen saiatzeagatik.

H. Bi seme-alaba zituen. Duela 4 urte abortu egin zuen, ondoan klinika batean harraskaketa baten beharrez. Gaixorik odoljario eta guzi egon zen hilabete.

I. Bitan hilartu zuen. Ezkongabea. Poliziari deklaratuakoaren arauera, bigarrean Londresera behar ukan zuen hemen saiatu ondoan.

Hautarik askik antisorkariak eskatu ukan zizkien Asegurantzako medikuei baina hauk ukoa emanda zeuden.

Bakoitzarentzat fiskaleak 6 hila eta egunbete hilartze bakoitzeko eta hamai-ka urte gaieztapen (inabilitazio) berezi (hautatzeko eta kargudun hautatua izateko eskubiderik eza) eskatzen ditu.

Sei abokatuk, 4 gizon eta 2 emakume direla, aldeztatuko dituzte.



VERANEA EN



Jamala ja, jamala ji, Arabaja Arabaji.

Aldenduz doaz oporrak eta jendea hasi zaio lanari, estatutuari, abarrekoiei. Beti bezala. Gezur guztiak hainbeste errepika eta ikusiz gero egiak bilakatzen direnez, guk ERE Euskadin geratzea, ez dakigu nola, baina hala erabaki genuen. Egia esan RCE tipo letrak ez zuen gure konfidantza osorik, E.A.J.ren tramankuluren bat besterik ez bazen susmoa ba genuen, baina tira, polita zenez delako "veranea en Euskadi", -v- eta guztiz, erdaraz lehen-dabiziko aldiz ongi ipinita, ausartu ginen

Euskadin -veraneatzen-. Letra misteriotsu haiek Resistencia civil euskadiana edo de Euzkadi esangura zeukatela konturatu gineneko berandu zen gure plan osoak aldatzeko. Gernikako estatutuaren kolaboratzailearenak egiten egongo al ginatete? Batek jakin. Hartu genituen ba gure kamping denda, aulki zaharrak eta gas sua norabait abiatzeko esperantzan. Lehengo gauean Monzón, Ortzí, Garaikoetxea, Mari eta beste haiek agertu zitzaizkidan ametsetan, gero Campingeko moskitu eztenak

zirela esan zidan aldamenekoak.

*Ilasi hintzen ortzika eta Marioka...
Ametsak egiten dizkinat altoka...
Ibili hintzen gau osorik saltoka
Horri, buruak eman dio borroka*

Biharamonean egusentiko hotzak eraman zituen moskitu guztiak. Bitartean gu Barrika jo genuen, bertan dauden hartzetan egoteko eguzkitan. Bide oso txarra beheraino baina merezi du ibiltzeak, hagitz ongi egoten baita bertantxe. Jende atsegingarria eta gutti.

Horrela lasaitasunean eguzkitan etzanda iragaten ziren minutuak. Azkenean bainua. Batzokiko jendea zebilela hurbil diost belarran norbaitek ... "baietz zioat... horrek Karmeleko ikastolara bidaltzen ditu umeak, ez gaitu begiradarik kentzen". Eta konturatu ginen oso biluzik ginela, buruko hileetatik aluaren biloetaraino. Erdal kanta dantzugu hurrun, mar mar ez, blablaka.

*"Que desfachatez, pobres criaturas!
Esos no están en la ikastola?
A lo mejor hasta en el batzoki!"*

Ba datoz andrazakilak. Ez dira ezertaz ausartuko. Igual baietz, pentsatzen dut nik. Umeak ikustaraten dituzte. Barruan eskandalua daramate eta haragia gorritu zaie edariaz eta okelaz. Eskandalu euskotarra, arrazaren errepresentagarriena. Arraza onik!... si sabino levantara la cabeza. "Veranea en Euskadi" datokit berriro burua. "Nik ezin diat sabinorekin beraneatu".

Andraek ez dira ausartzen berbetin baina hurbilagotu egin dira. Plantatzen dira bertan so eta begira.

Halako batean euskal mordoiloari lotzen diote...

*"Txiu, txiu, txiu...
Eta zer ezan dautsu Arantxa etzearena?
Ba nau dogüna-e-gitéko, naidogüna juteko, nai dogü-ná jatéko."*

Plantatzen dira aurretik, gero atzetik, eta fixo fixo bekatua ere behitzen dute. Gu luze, ez gara inolako lotsa. Barre eta irri botatzen dizkiegu noizbehinka baina ez dute ulertu nahi atzerritarren hizkuntzarik. Lotsatu ez garenez andrazak ilak aspertu dira beraiek muntaturiko jokoz. Ba doaz aldera, berriro bakean sartu gara Barrikako haitz hestuotan.

Egun batzu geroago, Sopolako ondartzatako bati, -salvaje- biluztasunerako titulua eman dio hango udaletxeak. Noski baietz abertzale guztien botuekin. Demo-

EUZKADI (RCE)

krazian gaudenez, viva el geto. Hiriplangintza demokratikoa. Ondargintza demokratikoa, biluzkintza demokratikoa. Gora gu eta gure progresiaren batasuna!!

Goazen aurrera.


Kaminoetako iragarkiak agertzen zaizkigu euskaraz lehendabizikoz. Poztasunez irakurtzen ditugu lehen erdaraz soilik zeuden haiek. Guttienez behin, positibistak ageri gara. Baina ez gara asetzen horrekin ere ez.

Gure kaminoetatik zehar ba gabiltza berriro. Motrikura iritsi gara. Arratsaldean korrika ibili gara kalean zehar bertako guardia zibil bi jendea tirokatzen hasiak baitziren. Sokamuturra berria. Baina gu adardunak. Beldurrik? Ez da pentsatu ere. Oso ongi ibiliak izan gara euskal jai barruan. Zer ez diogu kondatu ba gainerako jendeari gero!

Eguraldia ere gure kontra jartzen ez bada zortzi egun pasatuko ditugu Gal-

arropari, eltzeari eta noizbeinka eguzki izpiei. "Jamala ja, jamala ji, Arabaja arabaji" egiten dugu guk orain ametsa, Arabia sauditarren edozein oasisetan egiten den antzean.

Ez dute elkar barbarik egiten, oihuka dabilta, kanping guztia ohartzen da beren eztabaidaz. Ez direla espainolak diotse han dauden aleman batzuei. "Vosotros los extranjeros no lo entendéis". Gero espainol pixkat irakatsi nahi diete ale-



Hiriplangintza demokratikoa. Ondargintza demokratikoa. Biluzkintza Akratikoa.

Peaton no cruce, atención semáforo, cambio de sentido, cruce peligroso folklore berriak ez ditu oraindik ukitu eta moda berria ipintzen ari denez hori ere eskatzea, hortaz burrukatzea, alderdi bilkuretan gisan euskaraz egitea, faxistakeria izugarria da.

Bitartean zenbait udaletxe oso aber-tzalek, ziriborraturik zeuden iragarkiak ongi garbitzen eta txukuntzen gastatu du hainbat gasolina erdal textuak berriro ager daitezen.

donamendiko baketan. Eta altxatzen dugu denda eta leloa bertan dago. Eibartarrak ditugu. Familia osoa. Telebista, hozkailua, alfonbrak eta guzti ekarri dituzte kanpinera.


Eibartarrok atzerritartzat hartu gaituzte aitzetan gure biluzkeriak agerian gertatzen dira eta. Bitartean besteak han gelditzen dira blai, mahai inguruan, berakaz zopa, marmitako, babarrun eta halakoe-tan. Hiru andre daude gizon tripadunekin. Gizonak janari eta kontari. Andrak

man majoei. Nahaste borrastean edozen gauza entzun daiteke. Ipar Amerika eta Hego Amerika ozeano handi batek erdibitzen duela eta antzekoak. Historiaz berdin.

Egunak pasata, aldameneko neska ttikia etorri zitzaigun hizketarako gogoarekin.

"Zuek, zer zareté?... atzerritarrak? extranjeros?..."

Bai. Euskaldunak gara.



Motrikun sokatira. Zuk saka, besteak tira.

Yo creía que eráis extranjeros. Qué perro más bonito! Es vasco? Ez. Alberto da. Honek Alberto du izena. Eso no es nombre de perro. Eta zuen txakurkumea ze izena du ba! Nerea...

Oso pozik hasi ginen biharamonean Albertoka leku guztietatik.

"Eta normalean egiten duzue erdaraz txakurrarekin? Ez beti. Askotan frantsesez egiten diogu. Pues mi abuela sabía euskara y ha votado a H.B. Ba ni ez!!!"

Zergatik ez du esan, nik ere PNVri eman diot botua? PNVkoek ez al diete txakurrei erdaraz egiten? Txakur bati erdaraz egiten dion norbait ezin ahal du PNVkoa izan? Non nabaritzen dira txakur peneubetikoak eta besteak? Horiek ziren gure sakontasunak Galdonamendiko kanping horretan.

Handik egun batzutara, inguruetako baserritar morrosko batek ganadu guztia eraman zuen kaka egitera. Lasai geratu ziren behi eta idi guztiak mokordoak kanpinerako ur biltzegailu barruan utziz. Gu kasualitatez ez ginen egun horretan kanpinan, aleman lagun batzu Gernika bisitazera eraman genituen.

Alemanak juntetxean sartu nahi ziren baina alferrik, hango atezainak ez zien baimenik eman sartzeko. "German not allowed" esan zien ingelesez. "Ez dira hona alemanak sartuko"... zuok birrindu zenuten Gernika.

Eta Gernika birrindu zuten eta duguenez, ez ginen sartu.

"Nolako paradisua duk hau" esan dit alemanak ingelesez.

"Hala duk, a beatiful paradise vasko-parlantea! Nagusituko al dira... Alemanian gorrotatzen dugun guztia? Ez zekiat, edozein gauza gerta dakioko paradisu peneubetikoari!"

Itzultzean, Galdonamendi osoa dantzatzan zegoen. Jendea korrika, atzeko tira itzela, esku guztiak hestetan, danak erdi makurtuta.

"Zer dago ba? El cólera, la peste aviar. Zer. Eibartarren marmitakoren bat jan al duzue denok? Que no, que un vasco se ha llevado las vacas a cagar al colector. Ia... un attentat de ETA zen... zioztan belga batek. Nik ezetz. Bilbotar horrek. "vasco" esan duenean euskaraz hitzegiten zuela morroskoak esan nahi izan du. ETAk ez du halakorik egiten. Eta zuek ETArekin ados zaudete?"

Noski baietz, hemen jende guztia ados dago. Alors, nous avons une image déformée de ce pays. Joan zaitzete leku guztietara, eta galde ezazue herriko jendea ia ados dauden ala ez?"

Belgak galdu genituen aurrerantzean. Ez dugu uste inkestarik egingo zutenik ez baitziren hona etorri horretara.

Gure oporrak amaitzeko Donostialdeera jo genuen. Egunotan iskanbila batzu sartu omen ziren parte zaharrean.

Motiboa, hippiek eta halako jende galduek kalean zehar muntaturiko salmahaiak. Saltzaileak haserre zueden, jostunak eta bitxi dendakoak batez ere. "Zerri horiek gu baino askoz merkeago saltzen baitute". Jakina, ez dute inolako zergarik pagatzen. "Guk danak".

Gero arrazoi konprengarri hauek mäsan galdu eta diferent bilakatu.

Behin saltzaitetako batek FOP abisatu zituen hippie eta ustelkeria alde egin dezala. Hala egin zuten FOP delakoak. Saltzaileak pozik. Ordenua berripinia dago. DEIA egunkariak Gasteizeko jaiei buruz egindako komentarioan bezala: "Así debe ser, ordenaditos y sin armar mucho follón". Atxakia, fotografia baten instantea. Han zeuden ageri hiru segunduz edo guttiago fotografia ateratzeko une beharrezkoa besterik, Gasteizeko zenbait talde. Kointzidentziaz ordenaturik agertu ziren. Kointzidentziaz ez baina, berori izanen da hemendik aurrera inposatuko den filosofia.

Konstituzioko emparantza -hala idatzita dago- hutsik geratu da hippiez eta maketoez. Guk konstituzioaren bila ari ginen baina ez genuen aurkitu.

"Vais a andar más derechos que una vara, rojos asquerosos que no tenéis nada de vascos!!!"

Gizon erdi mozkortia da horrelakorik oihukatu duena. Mehea, txupatua goitik behera.

"Miradme a mí", segitzen du oihukatzen. "Esto es un vasco! A mi nunca me ha hecho daños el vino. Eta... euskalduna eh!... hezurretaraino!!!" "Mamirik ez daukadala? ... A que te doy! Dejádme que lo mato!!!"

Hippie drogatua atxeman nahiez mozkortia eta andrazakil lodi bi jaurtikidira. Zist zast hasten dira batzokiko ardrak kolpeak ematen hippien buruan!! Hippiak diotse bitartean beraien senarrek in larru jotzen ez dutelako bera jo eta jo nahi dutela. Besteek aldiz Holandara bidali nahi dute hura.

"Hay que mandar a Holanda so eedos para que hagáis allí vuéstroporquerías. Hlau da gure parte zaharra. Donostiako parte zaharra. gurea da!!... ulertzen!"

Oporretako azken egun honetan, berandu bada ere, oso argi daukadan gauze bakarra zera da: RCE veranea en euskal autonomi estatutua onartzeko trantsituzela izan dela. El próximo año va a veranear tu tía.

E.H

TXISTUAREN ALDE: MARIA LUISA OZAITA-RI EKANTZUNEZ

Anaitasunaren 386. zenbakian irakurri dut Borja Barandiaranek Marisa Ozaitari egiten dioen elkarrizketa eta, honen barruan, azkeneko galdera ta erantzunak, txistuari buruzkoak. Dudan lanpostuarengatik ukitzen nauen arazo bat denez gero, erantzun bat ematen ausartzen naiz.

Nonbait, Marisa Ozaitaren iritzien arauera, txistua "osatu" eta "perfekzionatu" nahi izatea ez da bidezko. Horrelaxe esaten bait du aipaturiko elkarrizketan. Eta hori esan ondoren, txistuak egurrezko izan daitezkeen eskatzen du. Benetan ulergaitza. Txistuak ez bait ziren egurrezko sortu, edo, hobe esana, "herriak" ez zuen lehenengo txistua egurrezkoa sortu. Lehenengo txistuak, hasieretan flauta guztiak bezala, hezurrezko edo kanaberazkoak izan ziren.

Oraindik oroitu egiten da Maria Luisa Ozaita Alameda de Recalde-ko txistugileaz, Joakin Landaluzez alegia. Bera omen zen txistugile jatorra. Ez bide da Ozaita andereñoa ondoegi akordatzeko honetaz: Landaluzek txisturik gehienak plastikozkoak, ebonitazkoak, egin bait zituen.

Marisa Ozaitak galdetu egiten du ea zertarako osatu egin behar den txistua. Eta norbaitek erantzun dio: Bach jotzeko. Ez dakit nork eman dioen ihardespene hori. Nik ez niokeen emango. Dena dela, ez nekien gauzak hobetzeko eta bikaintzeko, arrazoinik eman behar zenik. Hala ta guztiz ere, itaun horri Ozaitak berak erantzuten dio. Herriak txistua sortu zuenean, "herriaren beharretarako balio izango zuen tresna bat" burutu zuen. Noski, herriaren beharrak handitzen ohi dira eta, txistuari bezala, behar horik betetzeko jaiotzen edozein gailuri bi bide geratzen zaizkio bakarrik. Zegoen zegoenean gelditzea, bere funtzionalitatea galtzea eta beraz, lehenago edo beranduago, desagertzea, bata. Bestea, jakina, herriaren beharren arauera aurreratzea beti baliagarri izateko, eta mantendu ahal izateko.



Zertarako, beraz, txistua landu eta ontzeko ahaleginetan denbora eman? Gaur eguneko euskaldunei, beste garaietan izan den legez, txistua ere beren dibertsioetan eta jakintza musikalean erabilgarri, balioitsu eta lagungarri gerta dakien. Eta ez Bach, ez Beethoven jotzeko (Ez dut esan nahi jo behar ez direnik).

Musikari handia omen da Ozaita eta baliagarri inorentzat bere hitzak nireak baino fidagarriagoak izatea. Honetaz, ordea, ez

nago ni neure iritzian bakarrik. Beste musikari benetan handiak idea horrekin bat etorri dira denboran zehar eta txistuari alde lan egiten saiatu dira. Esate baterako: Luis Urteaga, Jesus Guridi, Pablo Sorozabal, Emiliano Barandiaran, Eduardo Gorosarri, Jose Olaizola, Luis Aranburu, Enrike Aranburu, J.M. Gontzalez Bastida, Migel Gontzalez Bastida, Frantzisko Eskudero, Jose Antonio Erauskin, Jose Elkoriza, Joakin Eseberri, Joakin Iruretagoiena, A. Ilario Olazaran, Jose Uruñuela, Bitor Zubizarreta, Tomas Garbizu, A. Santiago, eta abar. Ez dakit nahiko izango diren.

Bestalde, hara Ozaitaren usteen arauera jokatzek erakarriko lituzkeen ondorioak. Baztertu beharko lirateke txistulari taldeak, bandak, "alardeak" eta abar. Txistuak desafinatuta leudekelako (Euskal Herriko Txistularien Elkarteak berrogei ta hamabi urteren buruan egin duen lan guztia eta bereziki argitaratu dituen hiru milatik gorako musikazko horriak bat ere baliorik gabe geratuko lirateke). Eta txistulariek bakarrik jo litzakete, banaka herriak sorturiko doinuak. Ziur nago gauza batez: honela jokatzu gero, musikoak kenduta, txistua suntsituko litzatekeela urte guttiren buruan.

Aipatutako ekinga gehienek ("Alardeak", bandak, etab.) ba dute, itxuraz, herriak emandako jatorrasuna. Txistulari bikoteak XIX. Mendearen hasierarako dokumentatuta daude. Bandek ba dute ehun-bat urte baino gehiago. Alardeek ere mende erdira iristear... Guzti hau, nire uste apalez, gehiegi da pertsona bakar batek mesprezatzeko eta arbuiatzeko ausardia ukan dezan.

Txistulariok, eskerdun gintzaizkiok Maria Luisa Ozaitari, guk klabezinaz egiten dugun erara, bera ere txistuaz mintzatu ez balitz.

JOXE INAZIO ANTSORENA
Donostiako Kontserbatorioko
Txistu irakaslea

"Ahargo" mendiari laionoa dario. Zeruak, goibela, hozkirria, behea, zuhaitzak eta muinoak laztantzen ditu. Barkoxen, Zuberoko herri urrunduan, egun maskarada eta astolasterrak ditugu. Abuztua izan arren udazkenaren muturra ageri zaigu barkoxtarren dantzak eta doinuak ikustera. Goizeko 8etan, meztara joaten dira partaideak eta 9etan, ba dira prest "arribada"ra abiatzeko. Maskaradak egun oro iraungo da.

Ezaguna da Zuberoko dantzak xoragarriak direla eta beste Euskal Herriko dantzekin zer alde daukaten. Ia dantza zuberotar denak ezagutzeko, ikusteko, zerik hoberena, maskaradari jarraitzea da.

Lehen, eta orain ere zenbait herritan, Garindaiñen eta Urdiñarben ikusi dugun bezala, "Carnaval" garaietan herriitik herriira joaten zen maskarada, bere dantza bihurrekin eta pertsonaia nabarrekin.

Erraiten den bezala, maskaradaren sormena, nahiz eta ezin jakin noiztik dugun, hauxe da: urtero behin, elizak herriari ematen zion baimena, bertako jaun nagusiari zeuden kexu oro aurpegi-ara botatzeko. Orduan "botere opor" horietan, jai handia egiten zuten, dantza eta kanta, ardoak eta sagardoak agindua. Nagusiari, hainitz kritika eta trufa egiten zizkioten, bere abusuak eta pe-txak ukatuz eta salhatuz, poz eta moz-ko bitartez.

Gaur egun eta sasoiaren aldaketarengatik, ez da beti errespetatzen "carnavalen" fetxa maskarada antzetzeko. Hainela, Zuberoko aurten hiru maskaradagutitienez izan ditugu eta fetxa desberdinetan.

Barkoxekoa, 9etan hasten zaigu "Arribadarekin", hots: herrirako sarri-ara. Dantzari eta soinulari oro, herriko hauzune urrunduenetariko batetik, herriko enparantzarantz datozkigu. Gero, "Barrikada Haustia" dugu. Hau da, gutopu baten gaidiketa, militar gisa erabiltzeko egina. Herrian zehar, goiz osoa iraunik dantzaka eta doinuka "Arribada" dantzen dena izaten da, etxeko atari bakoitzetan geratu eta bertako etxekoandreak ardo opa eginik. Arratsaldean, enparantzaren eta hainitz jenderen aurrean, maskaradaren antzetzeta ikus liteke eta bukatzeko Astolasterraren errepresentazioa.

Maskaradaren antzetzari eta dantzari asko dira eta hona hemen, garrantzitsuak:

"Jauna eta Anderia": Gazteluzaina edo noblea, herriko jaun nagusiaren eta emaztea. Gehienetan, orain alkate gisa jantzen da, eta konturagarria da, emaztearen sujeta gizonak jotzen dutela, emakumeek maskaradan parte hartzen ez baitute.

"Txerrero": mezularia edo zaldikoa. Berak ematen die pausoa besteek. Daramatzen kriskitinek iragartzen dute bere agerketa.

"Gathia": edo katua; egurrezko zigzag batez ebasten ditu, Jaunak ohostu dituen baliiodun gauzak herriari. Herri justizia.

"Kantiniertsua": jantzi eta kapela urdintsua. Larruzko gerriko bati lotuta, upeltxo bat darama. Zamaltzainaren probokatzailea da eta itxuraz, Napoleonen garaian sartu zuten sujeta bezala.

"Zamaltzaina": zaldizkoa. Gorputz erdiraino egurrezko zaldi batean sarturik, kabriolak eta jausiak eragiten dizkio.

"Banderazaina": Zuberoko banderaren daramana. Geldirik gabe zirkular eragiten dio Zuberoko entseinari eta dantzari-entseuak jokatu zuen Barkoxen sujeta hori: "Saru" ostatuko semea.

"Laboraria eta Laborarisa": baserritar biko bat, praubeki jantzirik.

"Marixalak": ferratzaileak. Normaluki, biarnesez kantatzen dute zeren eta aintzin batean Zuberoko ibiltzen zirenak, Biarnokoak izaten ziren.

"Kukulleruak": Jaunaren soldadua eta noizena behingo lapurrak.

"Kerestuak": irentzaileak edo zirkular-tzaileak. Zamaltzainari operazio bat egiten diote hazitarako ekintzaz abusu egiten baitu.

"Txorrotak": kontestatariak, zarata egileak. Txoroen miseriak eta esplotazioa kantatdituzte, asaldatzen eta nabazten izaten.

Barkoxen ez ziren agertu, baina beste maskaradetan bai eta hauk dira: Artza...

MASKARADEN BIRBIZKETA BARKOXEN



nak, Hartzak eta Axuriak (ardiak).

Gero beste talde nabar bat agertzen da, animazioa eta umorea ipintzen dituztenak antzeketan: "Beltzeria": beltzez jantzirik doazenak. Mirakulen korte anbulantea, zerbitzariak edo herri beharren jokua eramaten dute. Talde horretako hainbat pertsonaia lekutu izan dira baina oraindino hauk ikusi genituen Barkoxeko kaleetatik: "Buhamiak": Talde izugarritzko bat: "Baratxugaitz", buruzagia, "Kabana" eta "Uhart". Beste pertsonaia izaten da "Mañaña", buruzagiaren emaztea baina Barkoxeko maskaradan ez zen ageri eta beste mutil batek sujet hori jokatu zuen. Kortina zaharrezko jantziz mozturoririk eta ezpata luzeekin borrokak eta igtilu gorriak sorterazten dituzte. Beltzez jantzita agertzen diren "Kauterak": iji-toak edo buhamiak. Haien buruzagia "Pitxu" deitzen da, sujet barregarria eta nahaste-borraste sortzailea. Jauzika eta iurretik ibiltzen dira egun osoan. Haien kantak eta koblak, kritika sakonak eta ironikoak izaten dira, egoera miseriazkoa baitute. Barkoxen "Barbera" edo sendagilea ere izan genuen.

Dantzatu zitzuten dantzarik interesgarrienak eta hospetsuenak hauk izan ziren: "Suita", "Lagabota zaharra", "Breletik Jauztia", Arribada osoan egiten dena, "Godalet Dantza" beharbada denon artean hospetsuena, eta Zuberotik kanpo ezagutuena. Dantza horretan denok saiatzen dira lurrean ipinitako godalet baten inguruan eta "Kantiniertsia" azkenaldian, eta hiru bider, gainean jartzen da zutunik edalontzia bota barik. Beste dantza bat, "Jauziak" deitzen da eta bere izenak aipatzen duen bezala saltzoko dantza da. Dantza hauez aparte, pertsonaia talde bakoitzak bereak egiten ditu. Halakoxeak ditugu "Marixalen dantza", "Kerestuen dantza", "Txorrotarena", "Kukuluen mahila dantza" etab.

Barkoxtarrak, zuberotar denak bezala dantzazale amorratuak dira, eta oso trebeak iduritu zaizkigu. Maskarada hain luzea izan arren eta hain nekagarria, hau bukatu zenean, "Germenen" ostatuan elkartu ziren, eta han ere, dantzak eta doinuak izan ziren iluntzea heldu arte. "Pitxu" sujeta egin zuenak, hainbat jauzi eta erorketa jasan eta gero, biharamunean herren ikusi genuen. Hone-lakoa da Zuberoran festa xarmangarri hau.

Bi hitz bakarrik, Astolasterrak zer den adierazteko. Maskarada baino gutxiago ezagutua, azkenaldietan hainitz aldiz izaten da antzetzua Zuberoran. Honen gaia, eztei barregarri batek konposatzen du. Neska xarmant bat alargun zaharrak emazte hartzen du. Hemen ere, emakume pertsonaiak gizonek horniturik daude. Antzerki obra labur bat bezala asmatua, Barkoxekoak 5 koadro zituen. Oro da kanta. Pertsonaia batzu maskaradakoak ditugu: Mañaña emaztea, adibidez. Bi biko izan genuen ez-



kondurik: "Kadet" alarguna eta "Mañaña", "Pierra" eta "Katalina Handia". Mañaña eta Pierra gazteak, eta besteak haik baino askoz zaharragoak. Bikoak ez dira ongi konpontzen eta nahasi horren gertaerak izan ziren obraren osagarriak. Astolasterrarekin, egun alai amaitzen da publikoari bidalitako hone-lako aholkuaz:

"Zunbat bada zietan ixilik sofritzen Zentako etzidie gure gisa agertzen Tzintzarrotskariak (antzetzariak) hasi dira einhatzen Ondarrian Tzintzarri erraguzie nur den.


Hainbat dantza eta kanta, zirkin eta

margoak, Euskalherriko tradizio zaharretariko bat konposatzen dute. Zuri eta gorri airean, beltz margozko pertsonaia lurrean eta saltoka, kantak eta Bedaxegarraren txirula, Maskarada, miragarrizko gertaera da. Zuberook bizirik ditu zaharren odola eta arnasa, eta guk bizirik dugu Zuberua.

Erran beharra dago orain dela hogeta-hiru urte ez direla izan Barkoxen bertan, maskaradak antzetzuko. Antolatu eta zuzendu zituenarentzako, Germain Lechardoiarentzako, eta partaide orori, mila esker halako euskal tradizio birbiztearren eta Barkoxeko herri osoari, Agur eta ohore.

Jon Sendagorta.

EUSKARA: JALGI HADI XX, MENDEKO MUNDURA ASAMBLADAN, EUSKARA NAGUSI



Zaila ote da, itzulpen simultaneotarako sistemak jartzea?

Segur asko, Irailaren lehen hamabostaldian Bizkaiko Diputazioan hainbeste hautatu eta zenbait alderdiren ordezkariak entzerraturik egon direla entzun duzue, prentsaren bidez edo. Konkreteriki, Herri-Kandidatura batzutakoak eta HB, EMK-OIC, LKI eta PTE-ORT taldeetakoak. Zergatikoa: errefuxiatuen eskubideen aldeko kanpaina. Normala, ez da?

Berri modura tratatua izateko entzerrona hori nahiko zaharra da. Baina denbora aurrera doan arren, bertako Asanbladan gertaturiko prozesua oso aipagarria dela uste dut eta Euskal Herriaren berreuskalduntzearen alde burukatzten garenok oso kontutan hartzekoa.

Oso sinplea da. Hara! Bertan entzerraturik geunden gehienok, euskaldunak -euskal hiztunak- ginen (eta gara, noski). Guztiok diogu euskararen alde gaudela. Zergatik ez dugu, ba, hartzen, geure hiz-

kuntza nazionala hizkuntza praktiko eta errealtzat? Horixe zen gure kezka. Eta zer?

Pentsa eta egin. Euskaldunok euskara hutsez hitz egiten hasi ginen. Eta hau harri-garria! Ez zen problemarik sortu. Eta Espainiako erregea -Kontuz! Gramatika dakienak, erregea jarri dudala ikusiko du-aurrean genuela (koadro baten itxurraz), euskara gertatu zen nagusi Bizkaiko Diputazioan.

Zer esanik ez, medioak ipini genituen, euskara ez zekitenak ere prozesuan integratzeko. Horrelakoen alboan, euskaldun bat jartzen zen, itzulpen simultaneo egiteko. Eta noski, bestela ezin zuenak, bere ideia eta eritziak erdaraz agertzeko eskubidea zuen. Modu honetan eginik, Asanbladako hizketaldiaren 75 o/o-a baino gehiago euskaraz gertatzen zen. Eta hori, egunero, hamalau egunez. Komu-

nikatuak berak ere -ez denak, zoritxarrez-lehenik euskaraz egin eta gero itzuli egiten ziren, bietara emateko.

Azken eguneko Asanbladan, bestalde, entzerrona osoaren balorazioa egitean, oso positibotzat hartu zen euskarari buruzko jarrera, jendea horrelako bideak lantzeko prest agertuz.

Zorionak, ba, bertan egon diren guztiei eta ea horrela segitzen duten. Bitartean, eta aurrera begira, dei egiten diegu, Euskal Herriari ari diren talde eta erakunde guztiei (Diputazio, Udal, alderdi politiko,...), honelako bide praktikotan berrina abia daitezen, euskararen defentsa teorikorik onena, praktikan erabiltzea baita.

Hain zail ote da, itzulpen simultaneotarako sistemak jartzea?

J.R. Bilbao

HARRI BATEKIN HASI ZEN



zure aurrezkien banketxea




BANCO DE BILBAO

gizaldiz gizaldi aurreratzen



40 URTE ETA GERO ...

Konstituzioari esker Euskarak ez du inolako baliotasun juridikorik. Beregain beti egonen da zain erdera. Gaztelaniaz pentsatu eta egina da estatutua. Gernika-koari itzulpen bat egin zitzaion. Moncloakoari ere, egin ez bazaio laster egingen digute. Baina itzulpenok ez dira justuak. Ez dakigu zer datekeen horretarako arrazoia, ez baitu merezi euskaldun eta euskadiren aldeko ñabardurak euskaraz egitea, erdaraz esaten dena ñabardura eta dudarik gabekoa bada. Arrazoi hauek direla eta hemen bertan datozkizuen estatutuak erdaraz soilik argitaratzen dira.



GERNIKA. LEHEN ESKRIBAKETA

ARTICULO PRIMERO

1. El Pueblo Vasco o Euskal-Herria como expresión de su realidad nacional y para acceder a su autogobierno, se constituye en Comunidad Autónoma bajo la denominación de Euskadi o País Vasco, de acuerdo con la Constitución y con el presente Estatuto que es su norma institucional básica.
2. Los Poderes del País Vasco emanan del pueblo.



Iñigo Agirre Kerexeta, E.A.J.

ARTICULO SEGUNDO

1. Alava, Guipuzcoa, Navarra y Vizcaya tienen derecho imprescriptible a formar parte de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
2. El territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco quedará integrado por los Territorios Históricos de Alava, Guipuzcoa, Vizcaya y el de Navarra en el supuesto que decida su incorporación, de acuerdo con el procedimiento establecido en la Disposición Transitoria Cuarta de la Constitución.



Del Burgo pozik. «El Estatuto de "Gernika" es respetuoso con la personalidad de Navarra».

ARTICULO TERCERO

Cada uno de los Territorios Históricos que integran el País Vasco podrán conservar, o en su caso, restablecer y actualizar su organización y régimen privativos.

ARTICULO CUARTO

La designación de la sede de las Instituciones comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco se hará mediante Ley del Parlamento Vasco.

EZ ONARTUA

U.C.D.KO ESTA

.....Para asegurar la más firmes y estables bases a la autonomía del País Vasco, el Grupo Parlamentario Centrista considera necesario procurar que la redacción definitiva del Estatuto sea estrictamente respetuosa en todo con la vigente Constitución. Y ello no sólo porque su observancia y la de las Leyes en general es un principio incuestionable en un Estado de Derecho, sino porque la Constitución es expresión de la fórmula de convivencia democrática por la que ha optado libre y soberanamente nuestro pueblo. Es la Constitución la que fundamenta y atribuye sustentación jurídica a los Estatutos de Autonomía. En consecuencia, en la medida en que sean escrupulosamente guardados sus principios, se potencia el alto sentido político que encierra la elaboración y promulgación de los Estatutos y se salvaguarda su futura vigencia, y la plenitud de su observancia social. El cuidadoso respeto de los preceptos constitucionales ha de tener, en efecto, su reflejo inmediato en el estricto cumplimiento de los Estatutos, que serán la garantía jurídica del derecho de autonomía de los pueblos de España.....

.....El presente documento se ha inspirado en la necesidad de garantizar la igualdad de derechos y obligaciones de todos los españoles, con independencia de su asentamiento en el ámbito de una u otra Comunidad Autónoma.....


.....Por otra parte, razones de buena técnica jurídica que derivan tanto de una interpretación global e integradora de la Constitución, como de las enseñanzas que nos deparan las ciencias administrativas en cuanto a la funcionalidad de los esquemas de cooperación de los distintos ámbitos de poder, aconsejan formular observaciones y reparos a distintos extremos de la configuración de competencias que se diseña en el Estatuto Propyectado.

El procedimiento parlamentario que va a seguir este Estatuto, viene a establecer el marco de una concertación política y ello ha sido tenido muy presente al elaborar este documento. Las normas procesales de aplicación al caso, requieren precisamente para hacer su elaboración procesal posible, que frente al texto del Proyecto se presenten motivos de desacuerdo que permitan formalmente, discutir en cada caso la redacción concreta del mismo, ya que, si no se hace así, el precepto quedaría definitivamente aprobado en su actual relación literal. Dado que un texto legal debe ser fundamentalmente una unidad integrada y armónica, el buen fin de la concertación y la perfección del texto resultante, exigen su contemplación global. Ello a su vez requiere, dado el procedimiento aplicable, una necesaria generalización de los motivos de desacuerdo. Desacuerdos cuya valoración e intensidad, ocioso es decirlo, no es necesariamente homogénea en todos los supuestos, dado que en unos se trasluce la existencia de muy graves problemas de fondo, en otros de profundas diferencias de concepción y en otros de significación terminológica cuando no, en alguno, de redacción.

Por otra parte, la elaboración del texto definitivo en el que deben imperar criterios políticos y de funcionalidad, no puede, en modo alguno, concebirse como la resultante de una negociación sin pautas y sin referencias. Ha de estar presidida por la preocupación de conseguir que la Constitución, documento político fundamental sin el cual las autonomías no tendrían sentido político, ni la base conceptual y legal precisa, sea, no ya, por supuesto, íntegramente respetada, sino que constituya fuente de inspiración de los perfiles de la organización autonómica del Estado. Esta organización debe ser y será igual en posibilidades para todos y en su elaboración hay que tener muy en cuenta la resultante funcional que para la Nación en su conjunto y para el estado pueda comportar su generalización igualitaria dentro del respeto a las singularidades.

Todo ello, y la inevitable referencia de que los Proyectos de Estatuto son, en definitiva, normas jurídicas, hace inexcusable la invocación al texto constitucional y explica, al mismo tiempo el profundo sentido político que dicha invocación comporta.

Al presentar este escrito, el Grupo Parlamentario Centrista, consecuente con su compromiso de constituir y consolidar en España un Estado de Derecho Autonómico, al servicio de los grandes valores que consagra nuestra constitución reafirman su sincero propósito de contribuir a la mejor redacción del texto del Estatuto de Autonomía del País Vasco, desde el deseo de alcanzar un entendimiento enraizado en la común voluntad del mejor servicio a los intereses del País Vasco y de toda España. En este espíritu, y al amparo formal y necesario de este documento, los ponentes que designe el Grupo Parlamentario Centrista presentarán las propuestas de adición, supresión, modificación o mejora de la redacción que en cada caso corresponda.



«Gernikako» Estatutuaren aurkezpena.

U.C.D.-re

TUTUA DUGU?



Batak: «No consentiremos ni el cambio de una coma». Besteak: «En euskadi no hay refugiados, son asesinos».

2. PRINCIPIOS BASICOS.

El artículo 1.2 de la Constitución señala que: "...la soberanía nacional reside en el pueblo español, del que emanan los poderes del Estado". La soberanía es, pues, una e indivisible y corresponde al pueblo español en su conjunto.

El artículo 2 del mismo texto determina como fundamento de éste la unidad de la Nación española, al mismo tiempo que reconoce y garantiza el derecho a la autonomía de las nacionalidades y regiones que integran esa única Nación.

También el texto constitucional, fundamentado en estos principios, marca las frases procedimentales precisas para la aprobación definitiva de los Estatutos, y concretamente las del Estatuto de Autonomía del País Vasco, acogido a lo previsto en el artículo 141.2 de la Constitución a través de la Disposición Transitoria Segunda de la misma. Y el artículo 147.3 del mismo texto dispone que "... la reforma de los Estatutos se ajustará al procedimiento establecido en los mismos y requerirá, en todo caso, la aprobación por las Cortes Generales, mediante ley orgánica".

En cuanto a las Entidades Locales que pueden ejercer el derecho a la autonomía, se ha de respetar lo previsto en el artículo 143 y en la Disposición Transitoria Cuarta de la Constitución.

En base a estos principios, se FORMULA DESACUERDO con aquellos artículos del Proyecto de Estatuto de Autonomía del País Vasco que pudieran contradecirlos y especialmente con los artículos 1, 2, 3, 24.2, 25, 46. Disposición Adicional y Disposición Transitoria Tercera del proyecto.

3. IGUALDAD DE DERECHOS Y OBLIGACIONES.

El artículo 14 de la Constitución determina: "Los españoles son iguales ante la ley, sin que pueda prevalecer discriminación alguna por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social".

Este principio se concreta en el artículo 131.1 del mismo texto que señala que "... todos los españoles tienen los mismos derechos y obligaciones en cualquier parte del territorio del Estado".

En este sentido parece conveniente evitar cualquier formulación estatutaria que pudiera ser interpretada como una discriminación entre los vascos y el resto de los españoles en general, y, muy especialmente, cuando residan en el extranjero, y deban ejercer sus derechos políticos como españoles.

Si al principio constitucional antes enunciado unimos el contenido del artículo 2 de la Constitución parecerá necesario que en la redacción del proyecto se evite cualquier término que pudiera ser equívoco en orden a sugerir una concepción internacionalista de las relaciones entre el Estado y las Comunidades Autónomas: parece conveniente pues, que en todo lo que afecte a derechos y deberes fundamentales y a su desarrollo, el Estatuto se limite a remitirse a la propia Constitución.

DESAKORDIOAK

GERNIKA. BIGARREN ESKRIBAKETA

ARTICULO PRIMERO

oztopo berezirik ez digutela ipini esan behar dugu, nolabait guk geurea egin dezagun utziz; eta horrela, talde ofiziala egin ahalko dugu. Baina bestetik ez dute medio berezirik (ekonomikoak, kontratu berriak,...) ipini, eta alde horretatik, gure egintza mugaturik geratuko da, neurri batez. Dena den, gure eritziz, gauzarik inportanteena ofizialki hastea da. Eta hori eginen utziko gaituzte.

— Ea ba lortzen duzuen! Zorionak eta aurrera, egintza hori zentru guztietara hedatuz!

Txepetxa



HANDIKERIAREN KONTRA NORTASUNA

Geure gizarte kutsatu honetan, beti arduratzen gara gauzen handitasunaz eta ez kalitateaz. Eta erizpide horren bidez, handitasunak mugatzen eta zertzen du inguratzen gaituen orenen baliotasuna.

Jadanik mundura jaio garenetik bertik, bizi-lege baten prozesu orokorrean murgiltzen gara eta nahi-ta-nahi-ez hazi egingo gara.

Hautasunaren ezaugarriak ezabatuko dira eta, heldutasuneranzko bideari izango gara jaurtikiak.

Ados edo kontra gaudeke, ez dugu ezertxorik aldatuko baina. Haragiak ez du baimenik behar bere gosea elikatzeke, eta baldin elikadura galerazten badiogu, bere hilkortasunean, bizirik eta handituz jarraitu du. Zeren eta loditasuna, zabale-
ra, goiera, etab.; ez dira gure sortze-ahalmenaren ideiak baizik, baina energiak bizi-bizi dirau eta handituz (zentzu hitxi bat hartu gabe), beti transformatuz.

Agian geure izatearen beraren barnean, aurki genezake handitasuna -edo handikeria- handiesteko joera.

Eta gehienetan, sopindu egingo dugu geure burua bide horretantxe.

Handikeriaren belatzak, herri asko sorgindu du historian zehar, eta franko hil ere.

Baina ezin herriei errurik bota, herriak herrikidez osatzen baitira; eta, hortxe hasten da gataxka, gizonaren baitan. Gizona, gizonak berak zapaldurik. Norberekeria nagusi izatean indarra garaile. Norgehiagoketa sutan dago, eta sugarrak busti beharrezkoak dira.

Gutxitxorako balioko digu, negarraldi antzutan erortzeak; historiak eginik ditu bereak, eta konformakor izatean datza irauan ahal izatea.

Hor dugu geure historia, Euskal Herriko historia samina. Zergatik holakoa? Gure arbasoek ez zuten ezagutu borroka mingarria baizik, berezko nortasunaren aldeko borroka; eta nahiz eta bataila asko galdu, oraindik ikus dezakegu, behinik behin, geure milurteko kultura bizirik. Batez ere hizkuntzaz, euskaraz, isladaturik.

Gaur egun ere, etengabeko gataxka horren jarraitzaileak gara, eta ez dirudi laster izango duenik azkena.



Herri txiki (geografikoki) batetan gauden kokaturik, baina horrek ez dakarkigu atzerapenik, abantailak baizik.

Gure txikitasunak berak bortxaturik, denok bihurtzen gara eguneroko gertaeren partaide eta lekuko; zuzen-zuzen oratzen ditugu Euskal Herriko lurraldeetan zorhitzten diren fruitu guztiak. Herriak gehienetan ez bezala, pozarren aldarrিকা dezakegu geure geroa eratzten ari garela.

Ez dut honekin esan gura, bestetan ez dutenik borrokarik eramaten, ez zaienik berea axola, ez, baina ez dute guk beste parte-hartzerik.

Euskal arazoaren ordezkariak, ez daukede palku eskergatan; ez dugu telebistaren beharrik (eta barka nazatela) geure kantariak, politikariak, etab., ikusi ahal izateko. Noiznahi eta nonahi izango dugu ikusteko eta entzuteko abadagunea.

Esanik dudana, beharbada har liteke kontradikzio moduan, baina ez dut adierazi gura, mutu eta itsu irauan beharko dugunik, baizik eta ERNE! Geure abantailak ditugu, baina horrek ez gaitu hitzontzien amaraunetan sartu behar.

Handikeriaren kontra, baliagarri zaigu geure txikitasuna, arlo guztietan partaide izateko ahalmena eskaintzen baitigu (ahalmen barregarria apika).

Eta, lehenagoxe diodan legez, ez dugu behar galderen trikimailuetan jausi, galdurik baikaude horretara.

Jakinez bai, baina gehiegi barneratu gabe, utzi diguten emaitzarekin jarraitzean datza gure NORTasunaren iraupena, Euskal Herriaren NORTasunaren iraupena.

Euskal Herri nortasuntsu batetan nortasuna irtengo da garaile.

Karlos Santisteban

BIHOTZAREN OTOITZA

"Otoitz egizue gelditu bagarik" (1 Th. 5 17).

Paulo Apostoluak kristauoi agindu zigunetik, ez da hitzok zintzo-zintzo betetzen salatu denik falta izan. Batez ere Orthodoxian, Ekialdeko elizetan. Paulo izan ezik, Jesus Kristo bera, Lukaren Ebangelioaren arauera, etengabeko otoitzaren beharra biziki erakuste arren, juje dongea eta alarguntsaren parabolaz baliatu zen: "Otoitza beti egin behar dela aspertu gabe, ta ipui hau esan zien" (Luk 18 1-7).

Delako etengabetasun horrek begi hutsez ezina dirudi: nola otoitz egin "Etengabe" lo egingo bada, idatzi egingo bada. Metroko zaratan murgilduta txartela eros egingo bada...

Edozein egoeratan arima Jainkoari atxikitzea ahala dela probatu digu hainbat fraidek eta laikok. Artikulu hontan, Ekialdeko zenbait lurretan ikusi eta irakurri dudanez, gogo-arazo honi zernolako iertebide ematen zaion azalduko dizuet, laburki bederen, gaia oparo xamar da eta.

Otoitz nota hau Jesusen laguntza etengabe eskatzean datza eta, "Jesus" en otoitza izendatu da... Delako errepikatze horrek Apostoluen Ekintzetako bertsikulo batetan ditu bere sustraiak: "Eta Jainkoaren izena aitortzen duena onik aterako da" (Ap. Ek 2 21). Eta, haria luzatuz gero, Testamentu Zaharreko zenbait igariletan ere bai: "Jaunaren izenari dei egin dagioenak onik irtengo dira (Joel 3, 5).

Historiari bagagozkio ordea, lehenengoz VI garren mendeko Sinai mendiko barkartegietan eta gero Athosekoetan aurkitzen dugu, Orthodoxiaren beraren bihotzmuina bilalakatzeraino (1) "Jesu Kristo Jauna, Jainkoaren semea, erruki zakizkit niri pekatari" da errepikatzen den formula. Bistan denez, publikanoaren otoitza da (Luk 18 13).

Jatorrizkoa, ordea, Ekialdeko Liturgiek oparoki derabilten "Kyrie eleison" hura izan ei da, Eremuko Aitengandik daktoriguna hain zuzen. (2)

Ulertzari onari hitz gutti. Zein ulertzari hobeagorik Jeus baino? Hori dela eta, ezarian ezarian formula "Jesus" batetan laburtuz joan da.

Ondo dagoela esango didazue, baina horrenbestez ez dugu aipaturiko etengabetasuna lortzen. Jesusen otoitza berriz "non-nahi, noiz nahi, erabil daiteke: eli-



zan, lo-gelan, kalean, bulegoan, lantegian, ibiltzen ere bai". (3)

Bere sekretua, gure bizitasunaren erdian, bihotzean hain zuzen espiritua kokatzen datza, ezpainetan hasita bihotzean bertan sustraitu arte. Horregatik deritza bihotzaren otoitza".

Mendeetan zehar gogo-maisuengandik joan dira ikasiz bihotzaren otoitza erabili dutenak. XIII garremendeko azken urteetan eta erabat XIV garrenean ezinbesteko jakingarri batzu idatzi egin ziren. Danak bildurik, gaur egun MJ Guouillard-ek "teknika" bat idazteraino heldu da.

Hara: egunsentian eta batikipat ilunabarean gela lasai eta ilunean sartu (4). Zizkulu baten gainean eserita, aurreruntz makurtu egiten gara, mazail-ezurra bularrean aurka tinkatuz, hots, gorputza borobilduz. Bularrean, sorbaldan eta garondoa miñik nabaritzen (5). Masail-ezurra bularrean aurka tinkatzeaz aski badugu, ikuspena izango da borobil honen azken katebegia, zilborrari begira hain zuzen. Jarra bera sinale bat da, sakramentala da nonbait, gizaki osoa bihotzean datzala adieraziz. Arimari dagokionez, garrantzi handikoa da gogoaren barruraketa, gogo bihotzeraino jeitsi-araztea arnasketa medio delarik.

Gainera gorputzaren borobiltzeak berak arnasketaren gordetzea dakar.

Arnasa eutsi egiten da, ahal luzaroen otoitzaren hitzak esaten ditugula. Gero haizea bota, ezpainak hersten ditugula. Bigarren urrats batetan, gorputzaren jarrera zailari esker, aiseago barruratzen da otoitza... Hortaz, arnasaren joan-etorria moteldu egiten da. Orduan hitzak ezarian ezarian desagertu egiten dira, ezabatu: barrutik dario otoitza otoizlariari. Egun zoriontsu batetan, ekin eta ekin, geure gogoak Espiritu Sainduari egoitza eskein ahalko dio eta hitzaren beharra desagertu egingo da. Lanean, loatan, bihotza otoitz egongo da: etengabeko otoitzean, halegia.

Metodo hau, esan dugunez, antzinakoa dugu. Ez dateke beraz, orain lehen bezain egokia, gaurko bizitzaren tirabirak eta "stress" a kontutan hartuz gero.

Hori dela eta, Olivier Clement-ek dioskunez, Ekialdeko gogo-maisu gehienek otoitza indarrez, boluntarismo hutsez, bihotzeraino jaitearazteari ez deritzone komenigarri. Ez eta bular-garondoko miñari: aski bekigu arnasketaren erritmua.

Horrenbestez uzten dugu irakurle parrakorra. Beste une batetan otoitz mota honekin ikusi handirik dituen beste bi gaietaz mintzatuko zaigu: Philokarria eta Errusiar erromesaren historioak.

Borja Barandiaran

- 1) H de B "La Priere du coeur" dans *Messenger de l'Exarchat*, 5 rue Petel 75014 Paris.
- 2) J Meyendorf "S. Gregoire Palamas et la mystique orthodoxe". Ed. du Seuil 1.959.
- 3) La priere de Jesus Un moine de l'Eglise d' Orient Chevetogne Le livre de vie 72 pag.
- 4) Calliste et Ignace Xanthopoulos Methode et regle d'etaillee. Guouillard p. 124.
- 5) Gregoire le Sinaite. De la vie contemplative Guouillard p. 183.

JAKIN

EUSKAL KULTUR ALDIZKARIA

Hiruhilabetero

Hamaikagarren
zenbakiaren gai nagusia:

Martxoko Hauteskondeak
Euskal Herrian

Mikel Zarateren bizitza
eta lanak

—o0o—

900 pta. urtean.
275 alea

Eskabideak eta harpidetza:

Gral Mola, 23, 1-
DONOSTIA
Tel.(943) 271713

—o0o—

900 pta. urtean.
275 alea

Eskabideak
eta harpidetza:

Gral. Mola, 23-1.º
Donostia
Tel. (943) 27 17 13

anaitasuna

HARPIDEDUNA!
Gurekiko harreman guztietarako aipa ie-
zaiguzu, zure zenbakia.

BIZKAIA
HAMABOSTEROKOA

URTEKO ABONAMENDUA:

EUSKAL HERRIA:	1.200	pezeta	/75 F.F.
ESPAINIA eta FRANTZIA.....	1.500	"	/93 "
EUROPA eta AMERIKA.....	1.600	"	/23 U.S. d.
Beste herri guztiak.....	1.700	"	/25 U.S. d.

ALDIZKARI hau IRAKURRI NAHI baduzu, bete
ezazu argi, ondoko txartela eta bidal helbide hon-
tara:

ANAITASUNA

ZABALBIDE 68., BILBO-6

POSTA KAXA : 495

Tfno. bakarra: 94-4335808


Izen deiturak.....

Bizilekua.....

Herria eta Posta Barrutia.....

Barkua eta kontu irekia.....Tfnoa.....

DONOSTIAKO XVII ZINEMALDIA SALBATU EGIN DA



Zinemaldi hau zelebratu izatea mirakuluzat kalifikatu izan du Luis Galparsoro antolatzaileen ordezkariak, "zinemaldia salbatu egin dela uste dut" esaten zuen azken egunean balantzea egiterakoan. Eta hain zuzen, aurtengo udaberrian oraindik deus ere egin gabe zegoen, hiru hilabete-tan antolatu behar izan da guztia, presaka eta hesturaka, gauza asko inprobisaturik eta beste batzu ahalegin handien ondoren hatzemanetz. Azken orduko aldaketak ere ez dira falta izan. Edozelan ere, orohar, esan daiteke aurtengo zinemaldia salbatu egin dela, datozen urteetako iraupenaren haria oraindik ahula gelditzen den arren.

BALANTZE BAT SAILEI BEGIRA

Zinemaldiaren balantze bat egiteko begiratu egin behar da sail bakoitzeko filmeen kalitatea, sail bakoitza oso autonomoa izan dela kontuan izanik. Esan daiteke sail ofizialean, hau da, konkurtzukoan filmeak arras eskasak izan dire-

la (filme vedett-ak konkurtsutik at eman baitira: "Apocalypse Now" eta "Il Prato", "Manhattan" eta "Bertolucci-ren Hilargia", eta saiatu beharko litzatekeela filme hobeak ekartzen. Saria filme errusiarrari eman zitzaion aurreko urteetan bezala, baina hau beste kontu bat da...

Sail interesgarri bat izan da errealizadore berriena, hau da, zuzendariaren estraineiko filmeena. 1974. ea festibala zabalago egiteko sortutako sail hau normalean kalitate eskasekoa izaten den arren, aurtengo filme arras interesgarri batzu ikusi ahal izan dira. (New Old, Gamini, Una emozione in piu...) Bestalde, aurtengo sekzio informatiboa ez da izan ez gloriosa ez malerusa, baina "Moliere", "Salmo Gorria", "elurreko gatza" eta beste filme batzu oso interesgarriak izan dira.

Taviani anaiei buruzko sailean italiar anaia bi hauen zinema gehiena ikusi ahal izan da, batzutan bertsiio orijinalen eta

subtitulurik gabe, baina, orobat, ondo. Aipamen berezi bat merezi du, bestalde, Trueba zinetokiak eta bertan eman den arte eta saio sailak, filme arras onak eta gainera, sarrera merkeagoa.

Nazionalitateen saila lehen antolatu da aurtengo, dohainik zen sarrera C.A.M. aretoan, eta arrakastaz hasi, ere. Askatasun nazionalen alde burukatzen diren hainbat zinema autoktono ikusi ahal izan ditugu, egitura komertzialetan ikusi ezin daitezkeen filmeak, kortometraiak gehienak baina oso interesgarriak, alderdi etnikotik nahi: marjinaltasun aldetik.

Haurrentzako eta jubilatuentzako sailak ere dohainik ziren eta esperientzia positibotzat har daiteke. Azkenekoz herri eta haizotan eman izan diren filmeak aipa daitezke, esanez Gipuzkoan barrena eta Nafarroan ere apur bat, arrakasta handi batez, eraman izan direla pelikulak. Sail hontako ikusleak 40.000 izan omen dira. Ez da gutti.



ZINEMALDIAREN KATEGORIA ETA IRAUPENA

Nabarmena da Donostiako zinemaldia frankismoan baino ahulagoa dela egun, orduan multinazionalak eta gobernuak laguntzen zuten, orain herritartu den heinean galtzen ari da nazioartekotasuna eta goimailako prestijioa. FIAPF erakundeak ultimatum bat bota zuen, aurtengo edizioaren ondorioen arauera konfirmatu ala kenduko zitzaiola A delako kategoria. Ba dirudi mantendu egingo diotela nazioarteeko kategoria hau. Baina behar bada Donostiako zinemaldia espezializatu egin beharko litzateke zine moeta batetan, arte eta saioan adibidez.

Bestalde, zinemaldia antolatzea lan erraldoi bat da. Ez hiru hilabete eskasetan, baizik eta urte guztian zehar lan egin beharko luke talde zabal eta espezializatu batek. Beharrezkoa da, guztiko zinemagintzetan gertatzen dena ezagutzea, leku guztietan eta maila guztietan, eta horretarako kasik espia bezala ibili behar da kontinenteetan barrena.

Datorren urtean, bada, izanen da XVII Zinemaldia. Agian, derrigorrezkoa omen baita, jarraituko dute geurtz ere Victoria Eugenia-ren atariko sesio aristokratikoei eta saiatzen denik baldin bada edizio hobe bat izanen dugu, salbatzea ez baita nahikoa.

J.S.

APOCALYPSE NOW Francis Coppola

Zinegilearen helburua norbere ametsak birsortzea ikusle goak ikus eta beregana ditzan. Hau esaten zuen Francis Coppola-k eta bere filmeetan haxe ikusten da bere azkeneko "Apocalypse Now" honetan agertzen denez.

Berrogei milioi dolar gastaturik egin izan da filmea, baina esan daiteke espektakulu epiko harrigarri eta xarmangarri bat lortu dela. Vietnamgo gerlan kokaturik, abenturazkoa eta drama psikologi-

ko bat ere ba da aldiberean.

Istoria hau da. Willard kapitainak agindu bat hartzen du, Kurtz koronela erotu egin dela eta Vietnamgo oihanetan barrena joan behar duela bere bila hiltzeko. Frontean zehar hasieran, eta gero leku bakartietatik egiten du bidaia hibaian gora. Baina bidaia Kurtz-en bila ere baina bere buruaren bila ere bada, barne-bidaia baten antzera.

Joseph Conrad idazle polakoaren "Ilunpeetako bihotza" delako nobelan inspiraturik dago filmea. Fotografia, batez ere bigarren partekoa, xarmangarria da, Bernardo Bertolucci-ren "Hilargia" filmeko fotografo berdinarena, hau da, Vittorio Storaro. Musikaren egileak Francis F. Coppola bera eta bere aita dira, Carmine Coppola. Esan daiteke filmea ikusgarria dela, baina hortik aurrera esaten hasiz gero hitz asko beharko lirateke azaltzeko. Gerlaren kritika erabateko bat da, abenturazko zinea, erotasunari buruzko eta heriotzari buruzko erreflexio bat, ope-

ra harrigarri bat.

Zinema espektakulu eta narrazioa bada, haxe da aspaldian ikusi den filmerik onenatariko bat.

EL PROCESO DE BURGOS Imanol Uribe

1936.ek gerlaz geroztikako Euskal Herriko historian egun garrantzitsu bat izan zen 1968.ek ekainaren 7a, Txabi Etxebarrieta hil zutenekoa. Meliton Manzanas laster erortzen zen zerraldo, Abuztuaren 2an. Gero, egun garrantzitsu batzu, 1970.eko Abenduaren 3tik 30era arte, Burgoseko hauzia, epe berri bati hasera ematen ziolarik. Hauzi honetan juzkatuak izan ziren: Josu Abrisketa, Itziar Aizpuru, Vitor Arana, Julen Kalzada, Jose Antonio Karrera, Unai Dorronsoro, Jone Dorronsoro, Arantza Arruti, Eduardo Uriarte, Gregorio Lopez Irasuegi, Xabier Izko de la Iglesia, Xabier Larena, Jokin Gorostidi, Enrike Gesalaga, Jon Etxabe, eta Mario Onaindia.

Hauxek dira Imanol Uribe-ren filmeko protagonistak. Imanol Uribe Hegoamerikako San Salvador hirian sortua da 1850.ean. Kazetari eta zinegile honek kortometraia bi zituen eginak: "Off" (1976) eta "Ez" (1977). "El proceso de Burgos" da beraz bere lehen largometraia.

Dokumentu eta testimonio balios bat da. Elkarrizketek osaturik dago, eta orduko protagonisten testimonioen bidez birkonstruitzen da hauzia, oroitzen dira batez ere. Akats batzu agertzen dira filmean zehar: elaborazio gutxi du, musika ez da egokiena, pertsonaia bakoitzaren eskenarioa eta oso diskutigarriak dira, garrantzi gehiegi ematen zaio Bilboko ezkerrealdeari ETaren base sozialarekiko, artxibozko materiala ez dago ondo





probetxatua eta abar. Hala ere, atsede-
na eta hunkigarria egiten da filmea. Eta
gure egungo historia eta ETA mugimen-
duaren historiarako testimonio garrantzi-
tsu bat da.

HILARGIA

Bernardo Bertolucci

Iragan hamarrurtetik 1970ez geroztiko
hamarrurte hontara aldaketa ideologiko
sakon bat gertatu dela esan ohi da. Ba-
tzuren ustez iraultzatik burjesmendura
eta besteren eritziz grinatik erreflexiora
edo desenkantura iragan da orduko gaz-
teria. Aldaketa hau oso argiki agertzen
zaigu, esate baterako, Bernardo Bertolu-
cciren filmografiaren bilakaeran.

Hastapenetan "La comare seca" egin
zuen 1962. ea Pier Paolo Pasoliniren in-
fluentziak, eta ondoko largometraiak
"Prima della rivoluzione" (1964) eta
"Partner" (1968) izan ziren, lehena
intimista eta bigarrena eskizofrenikoa,
baina biak iraultza maitagarri eta ezin bati
buruz. "La strategia del ragno" jadanik

transizio filme bat da, 1970ean egin, non
aurrekoetako agresibitate elaborazio es-
tetikoa bihurtzen baita. "Il conformista"
(1970) ere filme heldu eta elegantea da,
"Last tango in Paris" (1972) gaiez sufrika-
ria den arren formalki arras elaboratua
da. "Novocento" (1976), zer esanik ez,
kuadro epiko eta sozial ekilibratu eta
erraldoi bat da. Filmografia hau klasi-
fikaturaz gero, beraz, bereiztu egin daitezke
hamarrurte bateko eta besteko filmeak
eta bere azken filmea ere, "Hilargia"
(1979), bigarren garai honi dagokio,
erreflexio eta elaborazio estetiko bat
denez.

B. Bertolucci-ren argumentua simplea
da, lehen begiradan, Caterine Silveri alar-
guntsa eta operako abeslaria Italiara
itzultzen da bere Joe semearekin, eta ama
giro aristokratikoetan bizi den bitartean
hamabost urteko seme hau drogadiktu
egiten da. Amaren eta semearen arteko
harremanak kondatzen dira filmean
zehar, gorrototik intzestura, Joe-ren per-
sonalitatea berregin arte.

Filme honen interpretaziorako derrigo-
rezkoak dira giltza psikoanalitikoak, in-

tzestuaren arazoaz eta sinbolo psiko-
analitikoek beterik baitago pelikula guz-
tia. Bestalde, melodrama bat ere ba da,
zeinaren eskenario urdin eta zurbila egoki
sortu baitute Vittorio Storaro fotogra-
fiaren egileak eta Ennio Morricone musi-
kagileak. Omenaldiak ere anitz dira: Ma-
rilyn Monroe, Pier Paolo Pasolini, Verdi...
Baina hitz bitan azaltzeko, gauza ezina
bestalde, maisuki filmaturiko drama psi-
koanalitiko bat dela esanen nuke.

MANHATTAN

Woody Allen

"Annie Hall" eta "Interiors" ondoren
Woody Allen-ek beste filme sentikor eta
triste bat egin du. Aspaldiko aktore hu-
morista xarmant hura zinegile landu bat
bihurtu da eta, esan behar da, kotizatue-
netariko bat ere bai.

Istoria maitasunezkoa da. Isaac Davis
gidoigileak utzi egiten du bere lana litera-
tura egiteko, damuturik dago Tracy ha-
mazazpi urteko neskatilarekin dituen he-
rremanengatik eta Mary maitatzen hasten

EL AÑO DE LA PESTE
Felipe Casals

Zer gertatuko litzateke egungo gizartera izurritea helduko balitz? Hauxe erantzuten saiatzen da filme hau. Felipe Casals zinegile mexikanoaren beste filme bat ere ikusi ahal da egunotan, "Canoa" deritzana alegia.

Daniel Defoe idazle ingelesak ba du obra bat izurriteari buruz eta, hain zuzen, honetantxe inspiratu da Felipe Casals. Izurritea hedatzen da estatu moderno batetan. Medikuek ohartu, agintariek albistea izkutatzeko, jendea hiltzen ari, baina ez da deus ere pasatzen, omen, gero eta hedatuago eritasuna, hilotzak kaleetan barrena... Izan ere filme honek iparramerikar katastrofe zinemaren kutsua du alde batetik, bestetik, hegoamerikako zinemagintzarena, Mexiko estilo eta herrialde bion artean baita.

Morboso samarra eta mediokrea da.

JAR AR NYFIKEN—GUL BLA
Vilgot Sjöman

1967.ean egindako filme hau zinema



begit



da, bere adiskide on baten laguna. Istoria oso arrunta da, baina bide batez Manhattan hauzo newyorkinoaren azterketa egiten da, bere bizimoduko giroa, hotsak eta koloreak.

MOLIERE

Ariane Mnouchkine

"Le Theatre du Soleil" delako kooperatibaren fundatzailea izan zen Ariane Mnouchkine eta teatrogile gisa esperientzia zabal bat du 1961.ez geroztik. Pari-

sen sortua da emakume hau 1939.ean. Orain teatrogintzatik zinemagintzara iragaiten saiatu da, hauxe da bere lehen filmea: "Moliere".

Baina ohar bat egin behar da, hau zinema den arren ez dagoela urrutiko teatro filmatu batetik, hau da, bai gaia eta bai interpretazioa eta baita ere filmatzeko era teatralak baitira. Frantses komediografoaren biografia da, artearen eta boterearen arteko harremani buruzko gogoeta eta XVII mendeko gizatiopoen erakusketa.

erotikoaren hastapenetan situatzen da. Filme suediar hau askatasun sexualari buruzko saio bat da, baina erotismoaz gain Suediako gizartearen inkontzientzia politiko eta sozialaren salakuntza ere ba da. Azalez gauza biok bereizirik doazela dirudien arren, arras lotuak daude, alienazio politiko eta sozialak sexuaren errepresioarekin zerikusi asko baitu. Kurioso da Franco-ren irudia hartzen duela protagonistak etsaiaren sinbolotzat. Bestalde, ene ustez 68-ko mugimenduetan agertuko ziren zenbait joeraren aintzindari ere ba da,

GAIK ZINEMA GAIK ZINEMA GAIK ZINEMA GA

eta ba du filmean zehar etsipen latente sakin bat.

Zuri-beltzeko fitografia du, oso deskonposatua dago filmea dokumentalaren eta fantasiaren artean eta ba dirudi zinema beraren anatomia ere erakutsi

du, Erdi Haroko giro geldoa eta izugarria. Ilunpetan, (erdi haroko) giroa, harrigarria, gogorra eta fantastikoa.

Milaka hargin elizdorreak jasotzen, izurritea hirietan barrena hedatzen, dendi-ero bat hegal mekanikoz aireetatik... Erdi haroko kronika hau koadro humanista erraldoi bat ere ba da.

NEW OLD Pierre Clementi

Oso ezaguna da Pierre Clementi aktore bezala, filme askotan ikusi dugu: "Belle de jour" (Luis Buñuel), "Porcile" (Pier Paolo Pasolini), "Partner" eta "Il conformista" (Bernardo Bertolucci), "Cabezas Cortadas" (Clauber Rocha), "I canivalli" (Liliana Cavani), "La pacifiste" (Miklos Jancso) eta abar. Orain zinegile gisa agertu zaigu, lehen aktore misteriosu bat zenak filme misteriosu bat egin digu orain.

"New Old" deritza eta 1967.ean hasitako trilogia baten bigarren partea omen da. Pierre Clementi bera da aldi-berean zuzendari, operadore eta gidoigile. 16 mm-tan egina da eta laborategi lana da funtsezkoa filmean zehar, muntaia, gain-jartze eta kolore aldaketazko trukuak batez ere. Pompidou museoaren produkzio bat da eta bertako materiale asko erabili dela dirudi.

Egunotako kronika subtitulatzan da filmea. Oro da fantasia, aldaketa, zinemari omenaldia, bere buruari ere bai, zergatik ez. Irudiak eta soinuk, egunotakoak eta aintzinakoak, bilakaera etengabe eta eder batean.

Ikusgarria benetan, filme esperimental hau.

EGUN LASAIK CLICHY-N

Jons Jorgen Thorsten

Egun lasaiak eta abentura erotikoa Clichy delako Pariseko kartierrean barrena, Henri Miller-ek kondatuak. Henri Miller-en bidaia erotikoa hau, Clichy hau-zoaldean bizi zenekoak, bere beste nobelatan bezala kronika autobiografikoa eta, batipat, sexualak dira.

Nobelaren adaptazio zinematografikoa Danimarkan egin da 1970ean, Jons Jorgen Thorsen zinegileak egin zuen eta ordurako gauza interesgarri bat zen zinema erotikoren alorrean. Gaur egun ere narrazio gisa ikus daiteke, xarma handirik ez duen arren.

SALMO GORRIA

Niklos Jancso

Zinegile hungaru hau planiar-sekuentziaren erabileragatik da ezaguna, filme



nahi dela. Ingmar Bergman maisuaren laguntzaile izana da Vilgot Sjöman eta esan dezakegu filme subertsibo bat egin zuela, jadanik klasikoa.

ANDREI RUBLEV Andrei Tarkovsky

Zinema sobietikoaren filme epiko nagusi honek eragozpenak izan zituen zabal-kunderako URSS-eko gobernu burokratikoaren aldetik. XV mendeko ikono margolari baten historia kondatzen

xarmangarri hontan ere kamararen mugimenduaren ikasgai bat eskaintzen du. Salmoa laborari iraultzaileen salmoa da, kantata gorria, militarren errepresioaren zain. Filmea ballet baten gisakoa da, Hungariako lautadetan, ballet iraultzaile bat, laborariei omenaldi bat.

Bere kutsu politikoz aparte, epika sozialistatik aparte alegia, filmea harrigarria eta xarmangarria da. Kolorea eta kantuak, pertsonaien eta, batez ere, kamara trebe horren higidura. Hau da zinemaren plazerra.

GAMIN Ciro Duran

Kamara hartu eta Bogotá-ko kaleetan barrena abiatzen gara filme hau ikustera-koan lunpenproletargoaren bizimodu likits eta gogorra fotograman hatzemarko. Lunpen hau, marxistek eta politikoz-ietiek ere mespreztatzen duten klase hau beren aginduetara ez delako atontzen, dokumental oso on batean erretratzen da. litxarrerok, emagaldua, haurrak... Testimonio sozial inportante bat.

LA ESTÉTICA DE LÉVI-STRAUSS

José Guilherme Merquior



EDICIONES DESTINO

ESTETIKA Levi-Strauss

Claude Levi-Strauss antropologia estrukturalaren gailurra dugu, jakina den bezala. Bere obraz eta antropologi ikerketaz estetikarako hainbat dedukzio sortu zuen. Estetikari eskaintako aportazio garrantzitsuak, filosofia estetikoarentzat, oinarritzkoak izan dira, eta artezko ikasketaren panorama guztiz aldatua gelditu zaigu, bere liburuen agerketa eta gero.

Honela, esan dezagun, hiru mailatan eman dizkigu axolagarriak eta berriak diren ekarpenak.

Lehenengoz, arteen dimentsio teknikoaren zentzua. Alde hau, estetika klasikoan, arras ahaztua izan da, gehienetan, estetikazko korronte pseudo-moderno ideialistetan: Guilherme Merquior-ek, Croce, eta Collingwood aipatzen ditu korronte horren ordezkariak bezala. Levi-Straussen "modelo llibur"aren teoriak, artetan dauden alde teknikoak eta materialenak edo gaienak bere lekuan ezartzen ditu, eta gogorarazten digu, edozein artezko obrak gairen bat behar duela, eta horregatik, teoria estetiko batean, artea, gai baten gainean eraso edo agresio ekintza bat bezala onhar litekeela.

Bigarren aieka edo aldea erakusteko, esan behar-dugu, teorilari askok, arteari ukatzen diote berak errealitatearekin duen harremana. Straussek ordea, artearen obrari ezagutzen dio, errealitateari buruzko ezaugarritasun bat. Adibidez, "irudi erromantiko" aren aldekoak arteari ematen dizkiote, intuiziozko eta argitasunezko botere naturgainekoak. Antropologia estrukturalak eta Straussek, arteari ez dizkiote halakoak eskaintzen. Artea, errealitatean sarturik dago, eta prozesu erreal eta dialektiko batetik datatu ditu bere sormenezko isurkaiak.

LIBURU BERRIAK

koan alde bietatik hurbiltzen gaitu, arazo estetikorantz.

Alde batetik, bera antropologo bezala, parekaketa bat egiten du, "mito" (herri primitiboek dituztenak) eta artea: Biak dira, "desberdintasunen bilduma bat, sistematikazko oposizioan ikerturik, kanpotik datorkien edozein motibazio baliogabeduna izaten". Pentsamendu edo asmo hau, azkeneko liburuan argi dugu: "mozorro bat ez da, berak errepresentatzen duena baina berak bilakatzen duena baizirik. Hots, mozorroak, ez errepresentatzea erabakitzen du." Beste hitzetan esaten digu Merquiorek- iparmendebaldeko kostaldeko mozorro indioek, bere egitura bilakakorretan dute esangura, eta inun ez, hortik kanpora.

Baina Levi-Straussek ikasitako "caduceo" tribuen tatuaietan, honela, "egituraren bilaketa" bezala eta musika, "izpirituaren erotismoa" bezalako ikuspegietan, esangurak ez daude beren barruko egituretan bakarrik, baina denotan, zentzuaren kanpoko iturri bat dago. Iturri hori, beste liburuetan, (Tropiko tristeak, Pentsamendu basatia, Georges Charbonnierekin egindako mintzaldietan eta Mythologiques sailean) adierazten ditu xeheki.

Laburpena egiteko ba, Levi-Straussek artearen obra analizatzen du, hiru ikuspegi honetatik:

1. bere gai edo materialeen garrantzia, 2. ezagumenezko prozesu bat bezala, gizartean nahastua, eta gizartetik ohostua motiboak eta ulerpenak eta, 3. keinuz egindako jokua edo ekintza. Baina eta ororen erdian esan beharra dago, estetika klasikoarekin etendura bat sortu zuela eta ari berri bat erregalatu ziela atzeko estetikarikertzaileei: analisi semiotikoa, hots "keinu"en erresuma.

Aipatu behar dugu ere, Estetika Semilogikoaren sortzailea, Levi-Straussek desarroilatu zuena benetazko axola ematen; hau da Pragako zirkuluko bat: Jan Mukarovsky. (Bere estetikari buruzko lanak, gaztelaniaz, Gustavo Gili editoreak argitaratu zituen) "Signos" bilduman. Mukarovsky honek "baliapen estetikoak, arteak daukan kanpoko munduarekiko porotasunaz, dugu definitua" diosku. Eta Levi-Straussek, formalismoaren aurkako polemikan esan zuen bezala: "Forma, berezia zaion gai baten oposizioz definitzen da; baina egiturak ez du beste funtsik: bera, bere funtsa baino gehiago ez da. Errealitatearen berezkoatasun bezala pentsatua den funts hori, antolapen logiko batean hatzemana".

Giza zientzia bezala, antropologiak, artean ezagumen bezalako asmoa desjainkotzen du. Arteak "ezagut" dezake zientziak ezagutzen duen bezala baina beste tankeraz, eta beti giza erara; xeheki esanda, ezin du ezagutu bere medio teknikoaren mugaz baino. Straussek ba, ez du uzten toki handirik irudimen jainkotua-arentzako, artea, giza lurrera itzultzen eta gizonen ekintza bezala tratatzen, historia-
tan, gizartean, hondatzen.

Atzenaldian eta hirugarren aieka adierazteko, esan beharra dago, Levi-Straussen mailarik sakonena aurkitzen dugula. Honek erakasten digu, artea "keinu" bezala begiratzen.

Straussetik goiti, eta estetikarekin arduratuak daudenek, artea, semiotika bide-
tik ikertzen dute. Adibidez, Katalunian, Rubert de Ventosen eta Jordi Lloveten obra merezigarriak ditugu, bide horretaz abiatuz. Idazle hauek, Straussek zabaldu-tako bidetik onhartzen dute, artea, "keinuekin" egindako jokua bezala. Honela, estetikari modernoeak, semiologia, psikologia esperimentalak eta soziologia erabiltzen dituzte, ikerketa estetikoak egiterakoan, metafisika eta historiaren filosofia erabili ordez.

Levi-Straussek, artea, "keinu" eta "egitura ezagukorra" bezala onhartzera-

LIBURU BERRIAK



EL SEGUNDO ANILLO DEL PODER
Carlos Castaneda
Pomaire Argitaletxea

Oso zabalduak eta hedatuak izan zirelako Castanedaren liburuak.

Honekin bost liburu osotzen dira antropologo amerikano honenak.

Beste lau liburu, Mexikon argitaratu zirenen gaztelaniaz, Fondo de cultura economica argitetxean. Lehenengo lau horietan, Castaneda, Juan Matus sorginarekin hasten da bere ikasketa sorginen sekretuetan. Don Juanek, beste munduko ikuspegi bat erakasten dio eta munduko ezagumen ezezagun eta miragarritzko bat. Liruruetatik zehar, mundu horretan abiatzen da, abentatzeko ikasketa luzea egin eta gero.

Bere lehenengo mundu zien 'ifikoa eta logikoa deuseztatzen zaio eta beste maila edo kategoria batera bidaltzen du Don Juanek. Honek heriotza; Herio forman hots, pertsonaia bezala, kontzeptio horren erdian jartzen du: "Pentsa ezazu, edozein momentutan hil zintezkeela eta heriotzak animalia eta pertza guztiekin partekatzen zaituela, zeren eta denok hil behar gaitu noizbait. Orduan eduki ezak pentsamendu hori: argi eta zure ekintza orotak zure bizitzaren azken momentutan zauden bezala ari zaitez".

Honela mintzatzen zaio Don Juan "Gure bizitzan ekintza guztiak bihotza duen bidetik abentatu behar ditugu". Sorginaren erakusketek, mundurako filosofia bat gordetzen dute, sakona eta gogorra. Baina jakintsu bihurtzeko medio horretan hainbat froga eta lan izan behar da. Dena dela, Don Juanekin bidali bat egiten da beste ezagumenezko mundu batera. Honek, bostgarren liburuak, azkeneko esperientziak kondatzen dizkigu, non eta Castaneda, ia, bera baita, sakondua baitago mundu izugarritzko horretan.

Bizitza joku tragiko bat baino gehiago ez da, baina sorginaren bidetik abiaturik, hiltzerakoan hel dezakezu bitzitza kosmiko bat, unibertsu osoarekin bat eginda. Zeren eta, "Daukagun bizitza, ikustaldi luze bat baino gehiago ez da konturatzen zara?"



CONVERSACIONES CON MIRO
Georges Raillard
Granica Editor. Serie conversaciones.
Barcelona 1978

Ikus dezakegun bezala, hau ez da liburu berri bat baina erraza topatzeko ere ez, eta hau idazten duenak ez du aurkitu orain arte.

Liburuan agertzen dena, ez da Miroren elkarrizketa bilduma bat baino gehiago, baina kontura hartzen, pintorea oso guttitan mintzatu dela eta deklartapenik egin ez duela, dokumentu bezala, oso baliaduna da kultura mailan et pintoretan arduratuak direnentzako.

Mintzaldi honetan ez dira bakarrik bere arteen arazoak agertzen baina kulturaren bitzitza eta aurrerapenaren ere unealdi luze batean baita, zeren eta Miró gelditzen direnetariko bat bait surrealismo eta beste mugimendu sortzaile artean.

Adibidez, Daliri eskainitako eritziak oso merezigarriak dira, Bretoni egindakoak bezalakoak. Surrealismoaren aieka interesgarri hainitz agertzen zaizkigu, anekdota pertsonalekin nahastuak. Pintorearen alde ezaugarriak ere abentatzen dira soilki horrialdeetan. Liburu beharrezkoa pinturazaleentzako.

Jon Sendagorta

EUSKARAZ ZER? HONA GURE HITZA: EGUNORO ERABILTZEA.



© GRUPO

Egin dezagun egunkari elebidun bat, gure kale, eskola eta lantegietan euskara egunoro erabil-araz dezan.

Geure hizkuntza baitugu gure herri bizitzaren erakusle bakarra.

Iritsi baita euskara geure etxe-zulotik ateratzeko garaia. Guztiok hartu behar dugu esku, Egin geurea, elebiduna, geuk nahi dugun hori izan dedin.

Elkargoan eginez. Guztiok finantziatuz.

Egin dezagun geure egunkari berri eta egi-zalea.

Harpide zaitetz eta partzuer-kontu bat eskura, kupoi hau bete eta ORAIN, S.A.-ri bidaliz: ORAIN, S.A.

Apartado 1567. Bilbao.

Apartado 444. Pamplona.

Apartado 1397. San Sebastián.

Apartado 420. Vitoria.

EGIN egunkariaren finantziaketan esku hartu nahi dut:

Urteko harpidetzaren bidez.
(2.000 a 100.000.) _____ pezetako partzuer-kontuaren bidez.

Ordaintzeko era

Giro n.º _____ Cuenta corriente n.º _____

Bankoa _____

Deitura _____

Helbidea _____ Telefonoa _____

Hiria _____ Probintzia _____

egin

HAGAMOS EGIN. EGIN DEZAGUN EGIN.

BADUGU / BA DUGU

Behin baino gehiago aipatua izan den arren, berriro dakart arazo hau jendarrerera, puntu honek guztiz kezkatuik nauka eta. Ba dakit jakin, gai honetaz Euskaltzaindiak bere erabakia hartua duela (ik. EUSKERA XVII, 1972, 169-173 hor.). Baina idazle-irakurle bezala erabaki hori egokitzen ez dudanez, eta hain zuzen ere gure Akademiari diodan errespetuagatik, kezkatuik nago.

Arazoa laburki uler daiteke. Aditzari dagokionez, bi modutan erabiltzen da BA partikula. Batetik esaldiaren baiezkotasuna azpimarkatu nahi denean, eta bestetik baldintzazko esaldietan. Beraz, bi funtzio desberdin, hurrengo adibideetan ikusten denez:

Baiezkoak:

- * Horrenbeste nik ere badakit (ba dakit)
- * Badator (ba dator) zure laguna.

Baldintzazkoak:

- * Horrenbeste baldin badakizu, galdera honi ongi erantzunen diozu.
- * Hori egiten baduzu, haserretu egingen naiz.


Euskaltzaindiaren erabakiaren arauera, kasu bietan BA delako hori aditzari loturik idatzi behar da. Hortaz, nire kezka sorburua hau da: nik neuk askoz ere praktikoago eta argiago ikusten dut, bi kasu horien idazkera desberdintzea, irakurlearen mesedetan batez ere, honek duda-izpirik gabe, kasu bakoitzean zer esan nahi zaion ongi uler dezan. Dena den, bi jarrean alde eta kontrako argumentuak direnez gero, nik neuk horrelako bazu ipiniko ditut (ezagutzen ditudanak, noski).

Kasu bietan BA hori loturik idaztearen alde

Nagusiki entzun dudan arrazoiak, erraztasunarena da. Beti batera idaztean, ez da dudarik sortzen noiz zein erabili behar den. Beti loturik eta kito! Errazago omen da horrela.

Hala ere, nik neuk galdetu egingen nuke, ea norentzat den errazago, idazlearentzat ala irakurlearentzat, zeren irakurleak behin baino gehiagotan bere dudak edukiko baititu eta interpretatu egin behar harko baitu textua. Ene ustez, ez da asko eskatzea, idazleak biak desberdintzen ikas dezan. Irakurleak berak ere laster ikasiko luke.

Egia esan, hau da ezagutzen dudan argumentu ia bakarra. Horrez gain, batzuk azken urteetako ohitura aipatzen dute. Dena den, bestelako argumenturik ezagutzen baduzue, pozik eskertuko ni-



zueke sail honetara bidaltzea, bertan argitaratzeko.

Kasu bien idazkera desberdintzearen alde

Baiezkoa eta baldintzazkoa desberdinki idaztearen alde, oster, nik neuk beste arrazoi batzu ikusten ditut, eta orain aipatuko ditut. Hasteko, diodan ezen baiezkotan, BA delako aditzaz bereizirik eta baldintzazkoan, aditzarekin loturik idaztea komeni dela esanen dut. Honela:

Baiezkoak:

- * Horrenbeste nik ere ba dakit.
- * Ba dator zure laguna.

Baldintzazkoak:

- * Horrenbeste baldin badakizu, galdera honi ongi erantzunen diozu.
- * Hori egiten baduzu, haserretu egingen naiz.

Hona hemen arrazoi batzu:

– Batetik textu idatziak zehaztasunean irabazten du, eta irakurleak lehen unetik daki zer esan nahi den, interpretazio-beharrik eduki gabe.

– Modu honetan baietza/ezetza adierazteko sistema simetrikoki erabiltzen da. Zergatik baietza loturik eta ezetza banaturik? Ez ote da hobe simetria gordetzea? *Ez da* idazten bada (beste gauza bat da, nola ahozkatzen den), zergatik ez da idazten *ba da*.

– Idazle bezala, eta beti loturik idatzi behar bada, problemak sortzen zaizkit, baiezkoko *ba* eta aditzaren artean partikularen bat sartu behar denean. Adibidez, baiezkotan *bada* idatzi behar bada, nola demontre idatzi behar dira beste hauek: *ba ote da, ba omen da, ba al da,...* Eta hauetan bereizirik idatzi behar bada, besteetan zergatik loturik? Ene ustez, kasu hauetan klotan jartzen da Euskaltzaindiaren gomendioa. Hemen ere, simetriak eta erregulartasunak bereizirik idaztea eskatzen dute.

– Bestelako arrazoiaren bat ere ikusten dut. Oker ez banago, euskaraz, menpeko esaldi guztietan aditzari aurrizki edo atzizki bat jartzen zaio: *den dela, delako, baita,...* Baldintzazko esaldiak menpekoak dira. Beraz, egoki da aurrizkia lotzea. Baiezkoak, ordea, ez dira menpekoak. Hots, aurrizkirik ez jartzea hobe dela dirudi. Hortaz, bereizirik idaztea hobe.

Euskaltzaindiari, errespetuz

Erabaki hori hartu zela, urteak dira. Diziplinaz, idazle asko, desegokitzen eduki arren, joera horretara makurtzen ari dira. Batzuk, oster, eta Euskaltzaindiari errespetu osoa diogun arren, erresistitu egiten gara, puntu honetan, eta aipaturiko arrazoiak direla medio, erabaki hori errebisatu egin behar dela uste dugu.

Izan ere, ANAITASUNA honetan bide horretatik abiatu gara. Eta lerro hauen bidez, nik neuk, pertsonalki, eskari hori egingen nioke Euskaltzaindiari edo eta lerro hauek irakurtzen dituzten euskaltzainei: hau da, berriro ere arazoa aztertzea eta azken urteotako eboluzioa ikusiz, lehenago harturiko erabakia aldatzea.

J.R. Etxebarria

31.

1	A	2	Z	3	A	4	B	5	A	6	A	7	G	8	E	9	R	I	10	B	11	E	12	Z
13	S	I	T	A	R	14	P	O	Z	U	15	S	I	N	E									
16	A	P	A	R	T	17	A	G	I	N	18	I	Z	A	N									
19	B	A	R	T	Z	20	E	L	O	N	A	21	K	A	R	I								
22	A	R	I	23	E	M	A	L	E	24	H	A	R	A	N									
				25	B	A	I																	
26	G	27	A	28	B	O	N	29	Z	30	O	K	A	R	T	31	U	32	T	33	A			
34	O	M	A	H	A	35	A	H	O	36	U	X	T	E	R									
37	G	O	R	R	I	U	N	E	A	38	D	I	O	T	E									
41	Z	42	U	43	T	44	I	K	45	E	46	H	47	G	A	M	48	A	49	N	50	A		
51	A	R	A	L	52	A	G	U	R	J	A	53	U	N	A	K								
54	B	A	R	E	55	L	I	R	A	56	T	R	I	B	A									
57	A	N	O	A	58	G	A	I	N	59	X	A	M	A	R									
60	L	O	T	61	K	A	K	A	O	62	O	K	A	K	A									

32.

	1		2		3	4	5		6	7	8	9	10
11			12	13	14			15		16			
17		18						19	20				
21					22	23							24
				25			26						
27	28	29		30						31	32		
33							34						
35	36			37	38		39		40			41	
42				43							44		
				45				46					
47	48	49					50			51	52	53	
	54									55			
56					57	58		59					60
61													

32.ZENBAKIA

LUZETARA: 1.—Liburu baten atal bat (laburpena). 3.—Taberna. 6.—Ente. 11.—Geroaldiko atziki. 12.—Euskal oinetakoak. 16.—Kotxea eramateko soka. 17.—Urak uzten duen kondar. 19.—Literatur lanak. 21.—"Geroa....." (atsotitz; 2 hitz). 25.—Dut, gipuzkeraz. 26.—Urez hila. 27.—Etsenplar, iheki. 30.—"Atzerri....." (atsotitz). 31.—Txerriak deitzeko oihu. 33.—Mitxoleta edo krabelin, adibidez (diminutiboa). 34.—.....Highland, Australiako mendizerra nagusia. 35.—Aurrea. 39.—Arrantzale. 42.—Hark ni ikusi..... 43.—Adiskideak. 44.—Izpiritu. 46.—Sendatu (infinutiboa). 47.—Xabier Lete-ren disko bat (4 hitz). 54.—Zaldiko jarlekuak. 55.—Ageri, begi bistan. 56.—"Udak, haragikoia; udazkenak,....." (Lizardi). 57.—Gorazarre. 60.—Arseniko (simbolo khimiko). 61.—Nafarroako lehen erregea. 62.—Ezetz. 63.—Kuba batentzat behar dena.

GOITIK BEHERA: 1.—Asia-ko begi-kosmetika. 2.—Biarnoko hiriburua. 3.—Bromo (simbolo khimiko). 4.—Akelarre batentzat behar dena. 5.—Atziki alatiboa. 7.—Otzara, saskia. 8.—Laranja baten zati bat. 9.—Babek kalte egiten dituen intsektu. 10.—Bi, erromatar zenbakitan. 11.—So'omon arhipelago irla; 1943. urteko gudu handi baten eskenatokia. 13.—Brigitte; aktriz. 14.—Bizkaiko ezpata-dantz. 15.—Antagonismoa, oposizioa. 18.—Baiezko (laburpena). 20.—Tours eta Orleans arteko frantses hiri. 22.—"Kalean bi txakur ta beste hiru...". 23.—Irlanda. 24.—Bat bateko gaixotasun galbidetsu. 28.—Gauko ekintza. 29.—Antolatu. 31.—Himalaietako herri. 32.—Gizonezko. 36.—Kasik. 37.—Semearen semea. 38.—Paria. 39.—Artzainaren probisioak. 40.—Eskutur. 41.—Rhenio (simbolo khimiko). 45.—Etxearen atalak. 48.—Sonoro. 49.—.....Descartes, filosofoa. 50.—Bigarren pertsona-ko izenordea. 51.—Zelai emankor. 52.—Baiezko partikula. 53.—Purpurazko fruitu. 56.—Ere (bizkaieraz). 58.—Lambda ondoko greziar letra. 59.—Neska bat deitzeko oihu.

Bizkaiak beti izango du bere Kutxa



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza handi bat



Gure herriaren nahi eta izpirituaren arauera dihardugu

Horrexegatik, hain zuzen, Gipuzkoako 100.000 familiatik gora gutaz fidatzen dira.

Gipuzkoan bizi diren familia guzientzat, soluziobide aproposak sortzen ditugu beren Aurrezki, Kreditu, premiak... etab. konpontzeko.

Gure herriaren nahi eta izpirituarekin zerikusi estua duten hainbat ekintza ere burutzen dugu. Horrela, gure lurralde

honetako kultur, folklore eta kirol adierazpenetan parte hartzen dugu; euskal kulturaren aldeko ekintzak bultzatu eta babesten ditugu (liburu argitalpenak, literatur txapelketak, margolaritza txapelketak, kontzertuak eta koralak, hitzaldiak eta kultur asteak...) eta Euskal

Hiztegi Arauemailearen argitalpena bezelako proiektu garrantzitsuak burutzen ditugu.


**LA CAJA TRABAJA POR GUIPUZCOA
Y PARA LOS GUIPUZCOANOS.**

